



TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA (2024ko maiatzak 3)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Lege-proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira goi-mailako arte-irakaskuntzak eta ezartzen baitira arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetzak.**

Ganberaren Mahaiak 2024ko urtarrilaren 26an erabaki zuen horren onespena agintzea Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kiroletako Batzordeari, legegintzako eskumen osoarekin. Orobat.

Lege-proiektu horren xedea da arautzea goi-mailako arte-irakaskuntzak, ikastegiak eta irakasleak, eta ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzea. Halaber, arte-irakaskuntza profesionalen antolamenduari eta baliokidetzei buruz zenbait alderdi ezartzen dira, zeintzuk aipatzen baitira Hezkuntzaren Lege Organikoan (2/2006, maiatzaren 3koa).

Beraz, lege-proiektu horrekin, egokitzapenak egin beharko dira arte-irakaskuntzako udal-eskoletan.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-5-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, elikagaiak botatzea eta alferrik galtzea prebenitzekoa.**

Ganberaren Mahaiak 2024ko urtarrilaren 19an erabaki zuen horren onespena agintzea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Batzordeari, legegintzako eskumen osoarekin.

Lege honen xedea da elikakateko eragile guztiek elikagaiak botatzea eta alferrik galtzea prebenitzea eta murriztea; lehenetsun hierarkia bat ezartzea; elikagaien dohaintza erraztea eta egoera ahulean dauden biztanleen elikadura-premiak asetzen laguntzea; ekoizpen eta kontsumo jasangarriagoak lortzea; eta elikakateko eragile guztiak sentibilizatzea, prestatzea eta mobilizatzea, elikagaiak egoki kudeatzeko, hargatik eragotzi gabe elikagaien kaltegabatasun-berme beharrezkoak.

Toki-entitateei dagokienez, proiektu honen bidez, haien eskumenen esparruan, banaka edo taldeka, elikagaiak alferrik galtzearen arloko kudeaketa-programak egin ahalko dituzte,



elikagaiak botatzeari eta alferrik galtzeari buruzko plan estrategikoari eta programa autonomikoei jarraikiz eta horiekin koordinatuta.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-4-1.PDF#page=1

- Lege organikoaren proiektua, emakumeen eta gizonen ordezkariak parekide eta presentzia orekatuarena.

Ganberaren Mahaiak 2024ko abenduaren 15ean erabaki zuen irizpena agintzea Berdintasun Batzordeari.

Lege-proiektu horrek hainbat testu arauemaile aldatzen ditu. Besteak beste, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren berrogeita lau bis artikulua aldatzen du, Espainiako kongresurako diputatuaren hauteskundeetarako, udal-hauteskundeetarako, uharterako kontseilu eta kabildoen kide izateko hauteskundeetarako, Europako Parlamenturako diputatuaren hauteskundeetarako eta autonomia-erkidegoen legebiltzarretako kide izateko hauteskundeetarako hautagaitzek emakumeen eta gizonen osatura parekidea izan dezaten; zerrendak, sexu bietako pertsonak egon beharko dira, era txandakatu.

Agindu hori aplikatuko zaie, orobat, senaturako hautagaitzei, zerrenda taldeak direnean; beraz, Hauteskunde Batzordeak ez ditu onartuko manu hori betetzen ez duten hautagaitzak, hala hautagaien kasuan, nola ordezkarien kasuan.

Xedapen horrekin, gainditu egingo da egungo eskakizuna, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren bidez ezarri zena; alegia, osatura orekatua izan behar du hautagai zerrendak, bi sexuek gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkariak dutela.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-1-1.PDF#page=1

- Mugikortasun Jasangarriaren lege-proiektua.

Ganberaren Mahaiak 2024ko otsailaren 23an erabaki zuen horren onespina agintzea Garraio eta Mugikortasun Jasangarritasuneko Batzordeari, legegintzako eskumen osoarekin eta premiazko prozeduraren bidez, Erregelamenduaren 148. eta 93. artikuluen arabera.

Arauek hainbat konponbide berritzaile arautuko ditu: eskatu ahalako garraioa, ibilgailuen erabilera partekatua, ibilgailuen aldi baterako alokairua eta ibilgailu autonomoen oinarriko arauaketa. Halaber, datu irekien digitalizazioa eta dibulgazioa sustatuko du.

Legea oinarriko lau zutabe ditu: eskubide soziala, mugikortasun garbi eta osasungarria, sistema digital eta berritzailea eta herritarren zerbitzura egindako inbertsioaren hobekuntza. Mugikortasun herritar guztien eskubide gisa aitortzen da eta mugikortasun irisgarri eta inklusiboa sustatzen da. Halaber, konponbide jasangarriak bultzatzen dira; esaterako,



mugikortasun aktiboa eta garraio publikoa. Digitalizazioa eta datu-trukea ere sustatu nahi da, erabaki-hartzea hobetzeko. Legeak, orobat, Espainiako mugikortasun jasangarriko sistema sortzea arautuko du, eta estatu-ekarpen finantzarioa, hiriguneetako mugikortasunerako.

Gainera, ordenamendu juridikoan negoziazio kolektibo berdea txertatuko da, zeinak esparru berri bat eskainiko dio negoziazio kolektiboa garatzeari.

Enpresa guztiek, sektore publikokoak barne, mugikortasun jasangarriko planak eduki beharko dituzte 24 hileko gehieneko epean, legean indarrean jartzen denetik hasita. Plan horien negoziazioa bermatzeko, Langileen Estatutuaren 85.1 artikulua aldatu da. Mugikortasun jasangarriko planak eduki behar dituzten jarduketa-zentroak zehazteko irizpideak ere ezarriko dira.

Lege hori Espainiako Suspertze Planaren parte da, eta jasangarritasuneko eta mugikortasuneko nazioarteko itunak eta Europako estrategiak betetzen laguntzea du xede.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-9-1.PDF#page=1

- Lege-proiektua, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina aldatzekoa.

Ganberaren Mahaiak 2024ko apirilaren 5ean erabaki zuen horren onespena agintzea Etxebizitza Hiri Agendako Batzordeari, legegintzako eskumen osoarekin.

Lege horren bidez, lurralde- eta hirigintza-antolamenduan segurtasun juridikoa indartzera bideratutako neurri sorta bat ezarriko da. Neurri horiek, Espainiako Konstituzioaren 9.1, 24., 103.1 eta 106.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, funtsean, hiru motatakoak dira:

Lehena. Antolamendu-tresna horien izaera juridikoarekin zerikusia duten neurriak. Tresna horiek, xedapen arauemaileak dituzten gorabehera, ekintza exekutibo, plano eta informazio-agirien ugaritasunak ezaugarritzen ditu.

Bigarrena. Lege-erregimen berezia ezartzen duten neurriak, euren berezitasunak direla eta. Erregimen horrek kontuan hartzen ditu prozedurako akats espezifikokoak, eta, horietatik, antolamendu-tresna osoaren edo horren zati baten erabateko deuseztasuna eragiteko moduko garrantzia, izatasun globala edo munta dutenak bereizten ditu tresna horiek baliokidetzea edo zuzentzea ahalbidetuko luketen akatsetatik —ezaugarri horiek ez dituztelako—, deuseztasun neurrigabeak ekiditeko. Ildo berean, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak zeharka aurkaratzeko berariazko epe bat ezartzen du, arrazoi formalengatik soilik aurkaratzen direnerako; alegia, lege horren arabera, aurkaratzearen oinarria funtsezko arrazoiak ez direnerako. Epe hori ez da izango lau urtetik gorakoa, behin betiko onarpen-erabakia argitaratzen denetik hasita.



Gainera, ekintza publikoen bidez aurkaratzeko araubidea ezartzen da, akats soilik formaletarako. Akats horiek, legearen helburuen arabera, garrantzitsuak izan behar dira eta antolamendu-tresnen alderdi nagusietan eragina izan behar dute.

Hirugarrena. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak izapidetu eta onartzeko prozeduran txertatu behar diren sektore-txostenek Espainian tratamendu hobea izateko neurriak. Hala, aitortzen da, beste administrazio publiko batzuen gainerako sektore-txostenekin batera, konpondu beharreko arazoaren parte direla.

Horiez gain, legeak beste alderdi batzuen aldaketak ere jorratzen ditu. Esaterako, onartu zirenetik igarotako denborari buruzkoak. Edota urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategineko zenbait artikulua edo eduki Konstituzio Auzitegiak, bere garaian bat egindako legeen aurka jarritako errekurtsioen kari, emandako epaietara egokitzeko premiari lotuak.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-19-1.PDF

Eusko Legebiltzarra

- LEGE-PROIEKTUA, EAEko gardentasunarena.

Mahaiak, 2023ko abenduaren 5ean, erabaki zuen izapidetzeko onartzea LEGE-PROIEKTUA, eta agindu zuen Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordeari bidal zekiola.

Lege-proiektu horrek buru ematen dio azken urteetan Euskadiko Autonomia Erkidegoan gardentasunaren kontzeptu zentralari buruzko lege-arauketa nagusi eta egokia ezartzea xede izan duten hainbat ekimeni.

Lege-proiektu horrek xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei aplikatuko zaie, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

https://bideoak2.euskadi.eus/2023/11/28/news_90061/Gardentasun_lege_proiektua_eus.pdf



BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **1085/2023 Errege Dekretua, abenduaren 5koa, 2023ko urtarrilaren 1eko udal-eroldaren berrikuspenak ematen dituen biztanle-zifrak ofizialtzat jotzen dituenena. (2023ko abenduaren 23ko BOE)**

2023ko urtarrilaren 1eko udal-eroldaren berrikuspenak ematen dituen biztanle-zifrak ofizialtzat jotzen dira, 2023ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin, Espainiako udalerrri guztietan.

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2023-26163

- **Ebazpena, 2023ko abenduaren 19koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita herritarrei Katastro Informazioko Puntuen asistentzia-zerbitzua bideokonferentzia bidez ematea eta 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena aldatzea. (2024ko urtarrilaren 11ko BOE)**

Ebazpen horren bidez, herritarrei Katastro Informazioko Puntuen asistentzia-zerbitzua bideokonferentzia bidez ematea onartzen da. Zerbitzu horien kudeaketa lurraldeko administrazio publikoen esku dago, eta Katastroko Zuzendaritza Nagusiak ezarritako baldintza eta zehaztapenen arabera eman beharko da, horren jarraibide, zirkular eta irizpide teknikoei jarraikiz.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/11/pdfs/BOE-A-2024-631.pdf>

- **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2024., 2025. eta 2026. urteetarako.**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren planak hainbat dirulaguntza-lerro barne hartzen ditu, toki-entitateei zuzentzen zaizkienak.

Testua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/plan_subvenciones_dept_2024/eu_def/adjuntos/Agindua-2023ko-abenduaren-28koa-Ekonomiaren-Garapen-Jasangarritasun-eta-Ingurumen-Sailburuarena-2024-2026-Dirulaguntzen-Plan-Estrategikoa.pdf



- Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2024. urterako.

Lehendakaritza Sailaren planak toki-entitateei zuzendutako dirulaguntza-lerro bat hartzen du barnean, gazteen emantzipazioari buruzko diagnostikoak eta planak egin ditzaten.

https://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/2024_diru_laguntzen_plana/eu_def/adjuntos/2024KO-DPE.pdf

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko agiria.

Zuzentasun-sistema hori ezartzearen helburua da arduradun, enplegatu publiko eta zerbitzu-ematean parte hartzen duen pertsona eta erakundeen artean zuzentasunaren kultura garatu eta sustatzea. Erakundearen irudiaren kaltetan gerta daitezkeen jokabide desegokiak prebenitzea.

Sistema hori, foru-administrazioan soilik aplikatzen bada ere, udal-administrazioentzat eredu izan liteke, agiri horretan jasotako zenbati alderditan.

https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/6830661/Zuzentasuna_sistema-eu.pdf/af8cf04e-7b40-ad7f-7eeb-03c84f770502

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Urteko Arau Plana 2024rako.

https://gardentasuna.bizkaia.eus/documents/1261696/1323125/CERTI+10_PAN+2024.pdf/f48218e4-c166-97ba-75fe-696fcdbf7577?t=1702637148733

- 145/2024 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, 2024rako lanbidearteko gutxieneko soldata finkatzen duena. (2024ko otsailaren 7ko BOE).

Espainiako gobernuak urteko lanbidearteko gutxieneko soldata finkatzea aginduta duenez, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 27.1 artikuluari jarraikiz, errege-dekretu horrek ezarriko ditu 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko zenbatekoak, hala langile finkoentzat nola behin-behineko zein sasoiko langileentzat, baita etxeko langileentzat ere.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2024-2251>



- Ebazpena, 2024ko otsailaren 7koa, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2024ko otsailaren 6ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, sektore publikoan zerbitzu ematen duten langileen ordainsariak ehuneko 0,5 igotzea onartzekoa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2.b) artikuluan xedatzen denarekin bat. (2024ko otsailaren 8ko BOE)

2022ko urriaren 19an, XXI. mendeko Administrazioaren esparru-akordioa sinatu zen. Bertan, ordainsari-arloan, urte anitzeko igoera-esparru bat adostu zen. Igoera horrek osagai finkoa eta aldakorra izango du, eta zati aldakorra, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan, Espainiako ekonomiaren hazkundeari lotuta egongo da, KPIHaren eta BPGaren igoera erreferentzia hartuta.

Espainiako Estatistikako Institutuak, 2024ko urtarrilaren 31n, egiaztatu du % 8,6 hazi zela BPG nominala 2023an. Bestalde, Espainiako gobernuaren aurreikuspenak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeari atxikitako taula makroekonomikoan jasoak, % 6ko BPG nominala aipatzen zuen.

Beraz, Ministro Kontseiluak sektore publikoan zerbitzu ematen duten langileen ordainsariak % 0,5 igotzea erabaki zuen.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/08/pdfs/BOE-A-2024-2325.pdf>

- Ebazpena, 2024ko otsailaren 7koa, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez agintzen baitira Espainiako sektore publikoko langileei, BPGaren bilakaerari loturik, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria ordaintzeko jarraibideak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2.a) artikuluari jarraikiz. (2024ko otsailaren 8ko BOE)

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-2324

- Ebazpena, 2023ko abenduaren 19koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita herritarrei Katastro Informazioko Puntuen asistentzia-zerbitzua bideokonferentzia bidez ematea eta 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena aldatzea. (2024ko urtarrilaren 11ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/11/pdfs/BOE-A-2024-631.pdf>



- Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 8koa, Katastroaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2014ko martxoaren 12koa, katastro-eroldaren fitxategiak eta ondasun higiezinaren gaineko zerga kudeatzeko beharrezkoa den informazioa trukatzeko gainerako fitxategiak bidaltzeko modua eta haien egitura, edukia eta formatu informatikoa onartzen dituen. (2024ko urtarrilaren 11ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/11/pdfs/BOE-A-2024-632.pdf>

- ECM/25/2024 Agindua, urtarrilaren 19koa, 2024an eta 2025eko urtarrilean Estatuaren zorra sortzea xedatzen duena. (2024ko urtarrilaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/22/pdfs/BOE-A-2024-1093.pdf>

- EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 18koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, zeinaren bidez onartzen baitira auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2024. urterako tarifak. (2024ko otsailaren 1eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400542e.pdf>

- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 31koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez jakinarazten baita bertan behera geratzen dela maskararen erabilera unibertsalaren nahitaezotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko osasun laguntza zentroetan, eta gomendio izatera igarotzen dela. (2024ko otsailaren 1eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400570u.pdf>

- 7/2024 DEKRETUA, otsailaren 26koa, lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena. (2024ko otsailaren 27ko EHAA)

Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 7.c) eta 50. artikuluek lehendakariari ematen dioten ahalmenaz baliatuta, eta Gobernu Kontseiluaren 2024ko otsailaren 22ko nahitaezko eztabaidaren ondoren, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten da: 2024ko apirilaren 21ean egingo dira, igandean.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 68.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hamabost egun iraungo du hauteskunde-kanpainak. Apirilaren 5eko 00:00etan hasiko da, eta apirilaren 19ko 24:00etan amaituko da.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401008e.pdf>



- **AGINDUA, 2024ko martxoaren 4koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena. (2024ko martxoaren 6ko EHAA).**

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarriak zehazten duenez, «Lege honetan aurreikusitako zenbatekoak euro konstanteei dagozkie». Bada, Eusko Jaurlaritzan ogasunaren ardura duen sailari dagokio zenbateko horiek eguneratzea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan, abenduaren 23ko 11/2015 Legez emandako erredakzioaren arabera.

Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egin denez, aurreko paragrafoan jasotzen den legezko manua bete behar da.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401168e.pdf>

- **Ebazpena, 2024ko otsailaren 20koa, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzarena, 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena. (2024ko martxoaren 6ko EHAA)**

Ebazpen honen bidez trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarri nahi dira, hainbat ibilgailu edo ibilgailu taldetarako, bide-segurtasuna, mugikortasuna eta zirkulazioaren arintasuna eraginda gerta daitezkeen egun zehatzetan. Egun horiek aukeratu dira hainbat faktore kontuan hartuta, esaterako, EAEko jaiegunen egutegia, asteburuak, oporren hasierako edo amaierakoaldiak, jai-zubiak edo zirkulazioaren gainean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/03/2401124e.pdf>

- **PJC/281/2024 Agindua, martxoaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen baita PJC/51/2024 Agindua, urtarrilaren 29koa, 2024ko ekitaldirako Gizarte Segurantzako kotizazioen, langabeziaren, jarduera uzteagatiko babesaren, Soldatak Bermatzeko Funtsaren eta Lanbide Heziketaren gaineko lege-arauak garatzen dituenak. (2024ko martxoaren 28ko BOE)**

Espainiako gobernuak 29,74 eurotik 31,22 eurora igo du enpresaburuek 30 egun baino gutxiagoko aldi baterako kontratuen amaieran ordaindu behar duten kotizazio gehigarria, aurtengo gutxieneko kotizazio-oinarrien % 5eko igoera dela eta.

Penalizazio horrek urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta lan-erreforman ezarri zen, behin-behinekotasunari eta lan-txandakatzeari aurka egiteko. Kalkulatzeko, kontuan



hartzen 8. taldeko (1. eta 2. mailako ofizialak) eguneko gutxieneko kotizazio-oinarria. Hori, gainerako gutxieneko oinarriak bezala, % 5 igo da 2024an, lanbidearteko gutxieneko soldata ere hein berean handitu denez.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/03/28/pdfs/BOE-A-2024-6218.pdf>

- Estatuko Administrazio Orokorraren 2024rako Araugintza Plana.

Estatuko Administrazio Orokorraren 2024rako Araugintza Plana onartu du Espainiako gobernuak, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 25. artikuluari jarraikiz. Bertan daude jasota ministerio-sailek aipatu urte natural horretan Ministro Kontseiluari igortzea aurreikusi duten lege- edo erregelamendu-ekimenak, onar ditzan, halaxe baitago ezarrita Estatuko Administrazio Orokorraren Urteko Araugintza Plana eta Araugintza Ebaluazioaren Urteko Txostena arautzen dituen eta Araugintza Planifikatzeko eta Ebaluatzeko Batzarra sortzen duen martxoaren 24ko 286/2017 Errege Dekretuak 2. artikuluan.

https://transparencia.gob.es/transparencia/dam/jcr:00e03e20-a2c7-46cb-a482-00f487896469/PAN_2024.pdf
https://transparencia.gob.es/transparencia/dam/jcr:00e03e20-a2c7-46cb-a482-00f487896469/PAN_2024.pdf

- Eusko Jaurlaritzaren 2024rako Urteko Araugintza Plana.

Urteko Araugintza Planak, toki-esparruan, besteak beste, arau-xedapen hauek aurreikusi ditu:

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.
- Dekretu-Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erregistroa arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, EAEko administrazioetako funtzionarioen karrera profesional horizontala eta EAEko sektore publikoko langileen jarduna ebaluatzeko sistema arautzen dituen.
- Dekretu-proiektua, EAEko administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko eta funtzionarioak hautatzeko araudia onartzen duena.

https://bideoak2.euskadi.eus/2024/02/20/news_91850/Plana.pdf



- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren onarpena. (2024ko apirilaren 2ko GAO)

Plan estrategikoaren helburuetarik bat da udalerrien baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.

Landa-ingurunea eta herri txikiak garatzeko baldintzak sortzea eta dauden aukerak indartzea, besteak beste, emakumeek bertan garatzeko dituzten itxaropenak eta beharrak kontuan hartuz.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/04/02/c2401980.pdf>

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- *Controversias sobre los coeficientes de incremento de valor del terreno en la nueva configuración de la plusvalía municipal*, Diego Marín-Barnuevo Fabo (idl-ren blogean argitaratua 2024ko urtarrilaren 11n)

<https://www.idluam.org/blog/controversias-sobre-los-coeficientes-de-incremento-de-valor-del-terreno-en-la-nueva-configuracion-de-la-plusvalia-municipal/>

- *Reformas urgentes en la LBRL y un nuevo régimen local para Cataluña* (idl-ren blogean argitaratua 2024ko urtarrilaren 17an)

<https://www.idluam.org/blog/reformas-urgentes-en-la-lbri-y-un-nuevo-regimen-local-para-cataluna/>

- *La importancia del recurso de casación en materia de tributos locales*, Ana Belén Macho Pérez (idl-ren blogean argitaratua 2024ko urtarrilaren 25ean)

<https://www.idluam.org/blog/la-importancia-del-recurso-de-casacion-en-materia-de-tributos-locales/>

- *Nivelación financiera municipal en Suiza y algunas sugerencias para los municipios rurales de España*, Francisco Velasco Caballero (ager aldizkarian argitaratua 2024ko otsailaren 1ean)

<https://www.idluam.org/blog/wp-content/uploads/2024/02/07-Ager-38-VELASCO-03.pdf>



- **La evaluación ambiental estratégica no es un mero “florero” en el procedimiento de aprobación de los planes de urbanismo. La posibilidad de limitar el alcance de la nulidad del plan por razones medioambientales**, Juan Antonio Chinchilla Peinado (idl-ren blogean argitaratua, 2024ko otsailaren 14an)

<https://www.idluam.org/blog/la-evaluacion-ambiental-estrategica-no-es-un-mero-florero-en-el-procedimiento-de-aprobacion-de-los-planes-de-urbanismo-la-posibilidad-de-limitar-el-alcance-de-la-nulidad-del-plan-po/>

- **Plazos y prórrogas en la contratación pública**, Jose María Gimeno Feliu (ObCP-ren blogean argitaratua 2023ko abenduaren 11n)

<https://www.obcp.es/opiniones/plazos-y-prorrogas-en-la-contratacion-publica>

- **Ejecución de fondos Next ¿más Estado o más mercado?**, Juan Antonio Carrillo Donaire (ObCP-ren blogean argitaratua 2024ko urtarrilaren 8an)

<https://www.obcp.es/opiniones/ejecucion-de-fondos-next-mas-estado-o-mas-mercado>

- **La dirección pública profesional como oportunidad para el fortalecimiento institucional**, J. Fernando Fariña Guillén (Acento Local blogean argitaratua 2024ko martxoaren 6an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-direccion-publica-profesional-como-oportunidad-para-el-fortalecimiento-institucional/>

- **El procedimiento de elaboración de las ordenanzas locales fiscales**, Irene Araguàs Galcerà (Acento Local blogean argitaratua 2024ko apirilaren 3an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-procedimiento-de-elaboracion-de-las-ordenanzas-locales-fiscales/>

- **¿Protección efectiva de los derechos de los usuarios turísticos por los municipios?**, Humberto Gosálbez Pequeño (Acento Local blogean argitaratua 2024ko martxoaren 27an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/proteccion-efectiva-de-los-derechos-de-los-usuarios-turisticos-por-los-municipios/>



- **Recaudación tributaria fuera del término municipal y procedimiento administrativo. Sentencia del Tribunal Supremo 84/2024**, Miryam Quintanilla Navarro (Acento Local blogean argitaratua 2024ko martxoaren 8an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/recaudacion-tributaria-fuera-del-termino-municipal-y-procedimiento-administrativo-sentencia-del-tribunal-supremo-84-2024/>

- **La indemnización por imposibilidad de cumplimiento de un acuerdo transaccional homologado judicialmente por modificación de la ley y la responsabilidad del Estado legislador (STS 27/2/2024)**, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es De Justicia* blogean argitaratua 2024ko martxoaren 14an)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/la-indemizaci%C3%B3n-por-imposibilidad-de-cumplimiento-de-un-acuerdo-transaccional-homologado-judicialmen>

- **Para poder ejecutar un acto administrativo de pago contra el obligado por subrogación, hay que permitirle primero pagar voluntariamente y notificarle el acto que inicia la ejecución forzosa**, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es De Justicia* blogean argitaratua 2024ko martxoaren 15ean)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/para-poder-ejecutar-un-acto-administrativo-de-pago-contra-el-obligado-por-subrogaci%C3%B3n-hay-que-permi>

- **El acceso a las actuaciones previas archivadas por el propio afectado y el art. 53.1.a) de la Ley 39/2015 de procedimiento administrativo común (STS 19/3/2024)**, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es De Justicia* blogean argitaratua 2024ko martxoaren 22an)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/el-acceso-a-las-actuaciones-previas-archivadas-por-el-propio-afectado-y-el-art-53-1-a-de-la-ley-39>

- **El Supremo rectifica: no es necesario adherirse a la apelación cuando se dejan imprejuzdados motivos si la sentencia no es perjudicial (STS 13/3/2024)**, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es De Justicia* blogean argitaratua 2024ko martxoaren 23an)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/el-supremo-rectifica-no-es-necesario-adherirse-a-la-apelaci%C3%B3n-cuando-se-dejan-imprejuzdados-motivos>



- **Suprema aclaración de la caducidad de los procedimientos de revisión de oficio**, José R. Chaves (egilearen *delJusticia* blogean argitaratua 2024ko apirilaren 5ean)

<https://delajusticia.com/2024/04/05/suprema-aclaracion-de-la-caducidad-de-los-procedimientos-de-revision-de-oficio/>

- **Precisiones jurisprudenciales sobre la reclamación de responsabilidad patrimonial por actuación ilegal**, José R. Chaves (egilearen *delJusticia* blogean argitaratua 2024ko martxoaren 13an)

<https://delajusticia.com/2024/03/13/precisiones-jurisprudenciales-sobre-la-reclamacion-de-responsabilidad-patrimonial-por-actuacion-ilegal/>

- **LA (CASI) IMPOSIBLE FUNCIONARIZACIÓN DEL PERSONAL LABORAL DE LAS ADMINISTRACIONES LOCALES**, Xavier BOLTAINA BOSCH (CEMCI aldizkari digitalean argitaratua 2023ko urritik abendura)

<https://revista.cemci.org/numero-60/pdf/tribuna-1-la-casi-imposible-funcionarizacion-del-personal-laboral-de-las-administraciones-locales.pdf>

- **¿Cómo aplicar las técnicas de Compliance para un uso ético de la Inteligencia Artificial?**, Concepción Campos Acuña (egilearen blogean argitaratua 2024ko otsailean)

<https://concepcioncampos.org/como-aplicar-las-tecnicas-de-compliance-para-un-uso-etico-de-la-inteligencia-artificial/>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO), BATZORDEAREN 2023ko abenduaren 20ko 2023/2884 (EB) EXEKUZIO ERREGELAMENDUA argitaratu da. Horren bidez, 2019/1780 (EB) Exekuzio Erregelamendua aldatzen da, kontratazio publikoaren esparruan iragarkian argitaratzeko formulario normalizatuak ezartzekoa.

Formulazio normalizatuen arloko politika harmonizatzea bermatzeko, Batzordeak sei formulario berri gehitu ditu. Horien bidez, botere adjudikatzailerik iragarkiak argitaratu ditzakete Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Erregelamendu hau 2024ko ekainaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L_202302884



- HFP/1352/2023 Agindua, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez argitaratzen baitira kontratu mota batzuek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzten mugak, sektore publikoko kontratazioaren ondorioetarako. (2023ko abenduaren 20ko BOE)

Agindu horren bidez, atalaseak aldatu dira, kontratazio-prozedurak aplikatzearen ondorioetarako.

<https://www.boe.es/boe/dias/2023/12/20/pdfs/BOE-A-2023-25764.pdf>

Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordea

- 31/23 Txostena, 2023ko urriaren 26koa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: sektore publikoko obren kontratuetan prezioak berrikusteko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretua aplikatzearen gaineko zenbait kontu.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2023/informe%2031_2023%20la%20rioja.pdf

- 29/23 Txostena, 2023ko urriaren 26koa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: Kontratataren sailkapena eta kaudimena egiaztatzea kanpoko bitartekoen bidez.

Batzordeak ondorioztatu du ezen, lizitatzaiileen sailkapena beharrezkoa den sektore publikoko kontratuetan, SPKLren 77.1.a) artikulua araberak, lizitatzaiileak SPKLren 75. artikuluan xedatutakoa baliatu ahal izango duela. Horretarako, kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzen den erakundearen sailkapenari dagokion agiria aurkeztu beharko du, baldin eta obren kontratista gisa sailkatuta badago, eta agiri horri erantsi beharko dio kontratua betetzeko behar diren baliabideak balizko adjudikatzailearen esku jarriko dituela adierazten duen konpromisoa.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2023/informe%2029_2023%20ayuntamiento%20de%20mieres.pdf

- 28/23 Txostena, 2023ko urriaren 26koa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: baldintza-agirian jasotako prezioak berrikusteko formularen indizeetako bat aldatzea.

Batzordeak ondorioztatu du ezen, prezioen berrikuspenean zenbait aldagairen bilakaerara lotzen duen klausula bat sartzen bada zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu batean, klausula hori nahitaez bete beharko dutela alderdiek, bai kontratistak, bai Administrazioak, eta aldagai horien



ondoriozko arriskua eta mentura nahiz horiek kontratuaren prezioan izan dezakeen eragina haiei jasanaraziko zaie.

Zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu batean, Administrazioak ordaindu beharreko prezioak berrikusteko klausula ezin alda daiteke, SPKLTBren 282. artikuluari eta SPKLren 290. artikuluari jarraikiz. Orobat, prezioen bilakaerak eragindako gehiegizko kostua ezin sar daiteke manu horien laugarren apartatuan jasotako kasuetako ezeinetan, oreka ekonomikoa berrezartzeko (*factum principis* eta ezinbesteko kasua).

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2023/informe%2028_2023%20ayuntamiento%20de%20castell%C3%B3n.pdf

- 18/23 Txostena, 2023ko urriaren 26koa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: SPKLren 159.1 artikuluko prozedura ireki sinplifikatua eta 159.6 artikuluko prozedura ireki sinplifikatu laburtua aplikatzea kontratu mistoetan.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen kontratu mistoak SPKLren 159.1 eta 159.6 artikuluen edukian ez aipatzeak ez duela esan nahi kontratu mota hori salbuetsita dagoela prozedura ireki sinplifikatu arruntaren edo prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren aplikaziotik, baizik eta SPKLren 18. artikuluko arauak bete beharko direla. Artikulu horren arabera, edozein kontratu misto prozedura ireki sinplifikatu arruntaren edo prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez adjudikatu ahal izango da, baldin eta, kontratuko prestazio nagusia zehaztuta, egiaztatzen bada prestazioen baturak ez dituela gainditzen SPKLren 159.1 eta 159.6 artikuluetan obra, zerbitzu eta horniduren kontratuetarako ezarritako mugak, prestazio nagusitik ondorioztatzen den kontratu mota zein den, eta SPKLren 159. artikuluan jasotako gainerako mugak betetzen badira.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2023/informe%2018_2023%20ayuntamiento%20de%20algete%20contratos%20mixto%20procedimiento%20159.6.pdf

- 11/23 Txostena, 2023ko urriaren 26koa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: oker izapidetu den kontratu batean sartutako prezioak berrikusteko klausula.

Batzordeak ondorioztatu du ezen, kontratazio-espeditente bat oker izapidetzeagatik kontratu bateko prezioak berrikusteko klausula bat ondoriorik gabe uzteko, beharrezkoa izango dela kontratuen prestaketa-ekintzak eta adjudikazio-ekintzak ofizios berrikustea, APELen V. tituluko



I. kapituluan ezarritakoaren arabera, arau horren 110. artikuluko mugen barruan eta SPKLren 41.1 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

Prezioen berrikuspena zenbait aldagaien bilakaerara lotzen duen klausula bat sartzen bada kontratu batean, klausula hori nahitaez bete beharko dutela alderdiek, bai kontratistak, bai Administrazioak, eta aldagai horien ondoriozko arriskua eta mentura nahiz horiek kontratuaren prezioan izan dezakeen eragina haiei jasanaraziko zaie.

Zerbitzuen emakidarako kontratu batean, Administrazioak ordaindu beharreko prezioak berrikusteko klausula ezin alda daiteke, SPKLren 290. artikuluari jarraikiz. Orobat, prezioen bilakaerak Administrazioari eragindako gehiegizko kostua ezin sar daiteke SPKLren 290.4 artikuluan jasotako kasuetako ezeinetan, oreka ekonomikoa berrezartzeko (*factum principis* eta ezinbesteko kasua); beraz, Administrazioari jasanaraziko zaizkio hura aplikatzearen ondorioak. Bestalde, kostuak gehiegizkoak izategatik kontratuan atzera egiteko eskubidea SPKLren 290.6 artikuluan aipatzen diren kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da, eta bertan ezarritako inguruabarretan. Administrazio publiko kontratatzaileak ezingo du baliatu.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2023/informe%2011_2023%20ayuntamiento%20de%20santiurde%20de%20toranzo.pdf

- 5/24 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kantsulta Batzordearena.

Gaia: toki-erakunde batek esparru-akordio batean oinarrituta egindako kontratuen adjudikazioaren publizitatea.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen, SPKLren 154.4 artikuluaaren arabera, udalerriek esparru-akordio baten oinarrituta egindako kontratuetan, esparru-akordio hori toki-erakundeak berak egin edo udalerrien elkarte edo federazio batek egin, are adjudikaziodun bakarria dagoenean ere, SPKLk toki-erakunde horren kontratazio-organoa behartzen duela hiru hilean behin argitaratzera hiruhileko horretan egindako oinarritutako kontratuen zerrenda, SPKLren 154. artikuluan ezarritako eran.

Toki-erakunde batek esparru-akordio batean oinarrituta egindako kontratu horiek adjudikatuz bat burutzen dira, gerora formalizatzea beharrezkoa izan gabe. Beraz, une horretatik aurrera has daiteke horien egikaritzea, ezertan eragotzi gabe kontratu horiek SPKLren 154.4 artikuluan xedatutako eran argitaratzeko premia.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe%205-2024%20sercobe%20publicidad%20contratos%20basados%20entidades%20locales.pdf>



- 16/23 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kantsulta Batzordearena.

Gaia: bermea bahitzea kontratistaren erruz gertatzen bada suntsiarazpena.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen, kontratistaren ez-betetze batengatik suntsitzen bada kontratua, SPKLren 213.3 artikuluan xedatzen denaren babesean, behin betiko bermearen zenbatekoa ordain dezala eskatuko zaiola kontratistari, baldin eta bermea kontratuaren prezioan egindako atxikipenaren bidez eratu bada, kalte eta galerak egon ez arren, edo, halakorik badago, atxikitako zenbatekoa baino txikiagoak izan arren.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/info_rme%2016_2023%20gob%20la%20rioja.pdf

- 21/23 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kantsulta Batzordearena.

Gaia: interes-gatazka aztertzeke unea.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarria eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua kontuan hartuta, ezin dela ulertu kontratazio-prozedura bateko interes-gatazkaren arriskuaren *ex ante* analisisa, nahitaez, lizitatzaillearen dokumentazio administratiboa daukan gutun-azala ireki baino lehen egin behar dela.

Interes-gatazkaren arriskuaren *ex ante* analisisa egiteko prozedura nahitaezkoa da «eskaintzen balorazioa egin baino lehen»; beraz, eragiketaren arduradunak kasuan-kasuan aztertu beharko du, prozedura bakoitzaren ezaugarriei erreparatuta, analisi hori noiz egin, aipatu muga aintzat hartuta.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/info_rme%2021_2023%20direcci%C3%B3n%20general%20de%20la%20policia.pdf



- 37/23 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: obra-kontratuen espediente guztietan proiektu teknikoa eta segurtasun eta osasuneko azterketa edo segurtasun eta osasuneko azterketa oinarritzkoa egotearen beharra.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen, obra-kontratueta, kasuan kasuko proiektuak segurtasun eta osasuneko azterketa bat edo, hala badagokio, segurtasun eta osasuneko azterketa oinarritzkoa barne hartu beharko duela beti, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoari jarraikiz, SPKLren 233.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Proiektuak eduki beharreko dokumentuak sinplifikatzea egoki izan arren, SPKLren 233.2 artikulua arabera, aipatu azterketa horiek alde batera utzi ahal izango dira, baldin eta horixe xedatzen badu araudi espezifikoa.

Obra-kontratu txikietan, proiektua ez bada beharrezkoa indarrean dauden xedapenen arabera, ez da eskatu beharko segurtasun eta osasuneko azterketa edo, hala badagokio, segurtasun eta osasuneko azterketa oinarritzkoa, kontratazio-espedientea izapidetzeko, sektore publikoko kontratuen legedian oinarrituta.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe%2037_2023%20ayto%20arroyomolinos.pdf

- 44/23 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuko Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: enpresa sortu berri eskatu beharreko kaudimen teknikoa.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen erregulazio harmonizatuko hornidura- eta zerbitzu-kontratueta ezin zaizkiela kaudimen teknikoko baldintza desberdinak ezarri enpresa sortu berriei eta gainerako enpresei.

Obra-kontratueta, 500.000 eurotik gorakoak badira, kaudimena egiaztatzeko, eskatu ahal izango da enpresaburua behar bezala sailkatuta egotea botere adjudikatzaileen obra-kontratista gisa, SPKLren 77.1.a) artikuluari jarraikiz.

Erregulazio-harmonizatuko hornidura- eta zerbitzu-kontratueta, eta sortaka banatutako 500.000 eurotik gorako obra-kontratueta, kaudimen-baldintzak sorta bakoitzaren balioari buruzkoak izango dira, salbu eta kontratu bakar bati buruz ari bagara, baldintza-agirik behartzen dutelako edo eskaintza integratzaileak daudelako.



Sorta batek ez badu gainditzen erregulazio harmonizatuaren mende egoteko zenbatekoa, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, edo ez bada 500.000 eurotik gorakoa, obra-kontratuen kasuan, sorta horri SPKLren 88.2, 89.1.h) eta 90.4 artikuluetan ezarritakoa aplikatu zaio. Aitzitik, kontratu bakar bati buruz ari bagara, baldintza-agiriekin behartzen dutelako edo eskaintza integratzaileak daudelako, kasuan kasuko sorten zenbatekoen batura hartu beharko da kontuan. <https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe%2044-2023%20la%20orioja.pdf>

- 45/23 Txostena, 2024ko martxoaren 21ekoa, Estatuako Kontratazio Publikoko Kontsulta Batzordearena.

Gaia: administrazio publikoaren izaera ez duen botere adjudikatzailerik egindako kontratu baten suntsiarazpenaz arduratzeko eskumena duen jurisdikzio-ordea.

Batzordeak ondorioztatzen du ezen botere adjudikatzailerik —administrazio publikoaren izatasunik gabe— egindako kontratu pribatu baten suntsiarazpenari —SPKLren 211.1.g) artikuluko kausaren batengatik—buruzko auziak jurisdikzio-ordena zibilari dagozkiola. <https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe%2045-2023%20lucena.pdf>



Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea (OIRESCON).

- Urteko Ikuskapen Txostena, 2023.

Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek (OIRESCON), 2023ko abenduan, bere webgunean argitaratu du Espainiako kontratazio publikoari buruzko 2023ko Urteko Ikuskapen Txostena osatzen duten moduluetan jasotako ondorioen eta gomendioen txostena.

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIREscon/informe-anual-supervision-2023/ias2023-conclusiones-recomendaciones.pdf>

- 2022ko emakida-kontratuei buruzko Ikuskapen Txosten Berezia.

Emakida-kontratuen bidezko lankidetzeta publiko-pribatuaren egoera aztertzeko, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek (OIRESCON) 2022ko emakida-kontratuei buruzko lehen Ikuskapen Txosten Berezia egin du.

OIRESCONEk argitaratutako txostenaren arabera, tokiko sektore publikoa da emakida-kontratuen erabiltzaile nagusia Espainian.

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIREscon/informes-especiales-supervision/ies-concesiones2022.pdf>

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio-Organoa (KEAO)

- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN MEMORIA. 2022.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (aurrerantzean, OARC / KEAO) urtero egiten eta argitaratzen dituen memorien xedea da botere adjudikatzailerari, eragile ekonomikoei eta, oro har, interesdunei aldi batean (kasu honetan, 2022an) egindako jarduerari buruzko estatistika-informazioa ematea.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_oarc_memorias_doctrina/eu_def/adjuntos/Memoria-2022-EUS.pdf



- 1/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 8koa.

Baldintza-agiriak. Amaitutako prozedura, objektua gerora galtzeagatik (botere adjudikatzaileak adjudikazio-prozeduran atzera egitea).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/1_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia1_2024.pdf

- 5/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 10ekoa.

Kontratua luzatzea. Aurkaratzeko moduko egintza: kontratua luzatzeko ebazpen bat aurkaratu daiteke. Errekurtso-egileak alegatu duenez, legez kanpoko adjudikazio berri bat da, SPKLren 29.4 artikuluan ezarritako kontratuaren indarraldiaren luzapen baten estaldura formalarekin. Adjudikazio-prozedura bat ez izapidetzea, legez nahitaezkoa ez delako, aurkaratzeko moduko erabakia da, eta KEAOk bere eskumena zehazten duenean, botere adjudikatzaileak aurkaratutako egintzari ematen dion izenak ez du lotzen, eta bai, ordea, negozio juridikoaren izaerak, kontratu-legeriaren arabera. Kontratuaren ezohiko luzapena, kontratu berria formalizatu ez denean (SPKLren 29.4 artikulua): kontratu berria formalizatu ez izana ezin zaie egotzi adjudikazio-prozeduran kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen gertakarien ondoriozko gorabeheri (ez zen beharrezkoa adjudikazio-prozeduraren hasiera atzeratzea hitzarmen kolektibo berria sinatu arte, ezin da aurreikusi gabe utzi hitzarmen berriaren sinadura atzeratzea eta behin sinatuta atzeraeraginezko ondorioak izatea, gorabeherak ez dira adjudikazio-prozeduran gertatzen eta prozedura horren aurrekoak dira); ez da betetzen lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratzeko betekizuna, lizitazio-iragarkia ezin da ordeztu ondorio horietarako aurretiazko informazioarekin; zerbitzu-kontratu bat zuzenean adjudikatzea, alde aurreko prozedurarik gabe, eskubide osoko deuseztasunarekin.

Ebazpenaren ondorioak: KEAOk ezin du onartu botere adjudikatzailea beste luzapen-ebazpen bat ematera behartzeko asmoa, prestazioa gauzatzeko baldintza berriekin, botere adjudikatzailearen diskrezionalitatea zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko beharrezko diren egintzak hartzeko; prestazioa ziurtatzeko egindako gastu guztiengatiko kalte-ordaina, errekurtsogileak jurisprudentzia- eta administrazio-doktrina bat alegatzen du, baina ez du kostu, kalte edo gastu zehatzik alegatzen, eta ez dago jasota, ezta ere, ordain daitezkeen zenbateko edo kontzeptuen gutxi gorabeherako zehaztapena.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/5_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia5_2024.pdf



- 6/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 11koa.

Adjudikazioa. Aurkaratu ezin den egintza (100.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duen hornidura-kontratua).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/6_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia6_2024.pdf

- 11/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 16koa.

Adjudikazio-proposamena. Aurkaratu daitezkeen egintzak. Adjudikazio-proposamena ez da aurkaratu daitezkeen egintza bat, barne-hausnarketa bat kontratu publiko bat egiteko.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/11_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia11_2024.pdf

- 14/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 19koa.

Adjudikazioa. Espedienterako sarbidea errekurtsio-bidean: errekurtsogileak alegatu du ezin izan duela eskatutako dokumentazio guztia eskuratu, eta espedientearen zati bat euskaraz dagoela, gaztelaniazko itzulpenik gabe; ez du espedienterako sarbiderik eskatzen, ez du gaztelaniazko dokumenturik eskatzen eta ez du epe gehigarririk eskatzen errekurtsioa osatzeko; ustezko irregulartasunak ez dio eragotzi errekurtsio funtsatu bat egitea.

Eskaintza anormala: doktrina orokorra; lizitatzaille susmagarria anormaltasunean sartuta dago oso tarte txikiagatik, justifikazio-errekerimendua generikoa da, ezin zaio lizitatzailleari aurpegiratu bere justifikazioa lausoa edo generikoa denik, botere adjudikatzaileak emandako azalpenei eta espedientearen dauden elementuei eta betebeharrei erantzun diezaike, arkitektoen eta aparejadoreen ordainsariak liberalizatuta daude, lanbide-elkargoaren gutxi gorabeherako ordainsariak, gutxi gorabeherako ordainsarien eta langileen kostuen arteko aldea, lan-programak eta profesionalen arduraldiak ez dute zertan bat etorri, ez da justifikatzen lizitatzaille susmagarriak alegatutako orduko prezioa merkatukoa ez denik, BIM tresnak ez erabiltzeak ez du esan nahi egikaritzea bideraezina denik, prestazio intelektuala ez dago hirugarrenek emandako lehengaien edo horniduren mende, eta kontratu-prestazioaren barruan sartzen dira, adjudikaziodunak kontratuaren gehienak gauzatzen du eta bere eskaintza kalkulatu daiteke egoki deritzen ehunekoekin, are etekina murriztuta ere, botere adjudikatzaileak arloan daukan diskrezionalitate teknikoaren mugak bete ditu, motibazio nahikoa.

Motibazioa eta diskrezionalitatea: balio-judizioari lotutako atalase-maila duen adjudikazio-irizpide bat aplikatzea, funts arautua hautsiz (nahitaezko epe partziala), plangintza ezin da baloratu, baldintza-agirietan informazio nahikorik ez egotearen aurrean eragile



ekonomikoaren pasibotasunak ez du justifikatzen baldintza-agirien aurkako proposamen bat aurkeztea, eskaintza baztertu egin behar da.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/14_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia14_2024.pdf

- 016/2024 Erabakia, 2024ko urtarrilaren 25ekoa.

Kontratazio-mahaiaren proposamena, eskaintzen sailkapenarekin. Egintza ez aurkaragarria, baina aurkaratu daitekeen egintza bat dago, aurkaratu ezin den egintza berresten duena, prozesuko ekonomia. Preskripzio teknikoak: doktrina orokorra, ez-betetzea balioesteari buruzkoa, errekurtsogileak alegatzen duen ez-betetzearen frogaren zama du, eta argazkiak ez daude eskaintzan sartuta, eta horiek betetzen ez direla alegatzen da; lizitatzailleak produktu bat eskain dezake eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituen heinean, eta ez ditu bereizten adjudikaziodunaren eta lizitatzaillearen betebeharrak.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/16_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia16_2024.pdf

- 21/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 2koa.

Bazterketa. Eskaintza teknikoari buruzko dokumentazioa: lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazioa AKPAko eta PTAko hainbat klausulatan sakabanatuta dago, informazio desberdin eta inkoherentearekin, gardentasun-printzipioarekin, baldintza-agiriek beraiek ezartzen dute AKPAren lehentasuna zalantza izanez gero, bi baldintza-agirien arteko espezialitate-printzipioa, gardentasun-printzipioa. Bazterketa: eskaintza teknikoak eskatutako informazioa jasotzen du, botere adjudikatzailleak ezin du nahi izan eskaintzak preskripzio tekniko guztiak adieraztea, ezin da justifikatu PTA behar bezala ezagutzen ez dela hautematen den bazterketa, adjudikazio-irizpideek prezioari bakarrik egiten diote erreferentzia, ez da zehazten urratutako preskripzioa, alegatzen den faltaren kalitate-maila ez da baldintza-agirietan agertzen, eskaintzaren kalitate-falta ez da ezartzen, ez dago proposamenak kontratuaren helburuaren aurka egiten duen zantzurik, baldintza-agiriek ez dute zehazten «katalogoak», azpikontratazioa exijitzea.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/21_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia21_2024.pdf



- 24/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 8koa.

Adjudikazioa. Eskaintza ekonomikoa: eskaintza ekonomikoaren akatsak zuzentzea, doktrina orokorra, unitateko prezioek ez dute gehieneko prezioa gainditzen, gehieneko prezio globala 0,12 euroan gainditzen da, akatsaren garrantzirik eza. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa: doktrina orokorra; atxikitako bitartekoak beste lizitatzaille batzuen titulartasunekoak izatearen garrantzirik eza.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/24_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia24_2024.pdf

- 28/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 15ekoa.

Adjudikazioa. Aurkaratu daitekeen egintza: eskaintza inplizituki onartzea aurkaratu daitekeen egintza da. Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) ebazpena, lehiaren legez kontrako kasu batengatik zehapena ezartzen duena eta kontratatzeko debekua ez ezartzea erabakitzen duena, enpresak proposatutako lankidetzeta eta autozuzenketarako neurriak ikusita (arauak betetzeko programa), KEAOren ebazpena, aurreko adjudikazio-prozedura batean kolusiozko praktika bat egiaztatzen duena, aitortu eta mugatu gabeko kontratatzeko debekua, botere adjudikatzailearen betebeharra lizitatzaillearen gaitasuna egiaztatzeko; EBJAren jurisprudentzia, kolusiozko jardunbideetan oinarritutako aukerako bazterketaren arrazoiari buruzkoa, ezin dakieke lehiaren agintaritzei eskusiboki esleitu baztertzeko arrazoiari buruz erabakitzeko ahalmena, botere adjudikatzaileari (eta berari bakarrik) dagokio baztertze-arrazoiari buruz modu arrazoituan erabakitzea, botere adjudikatzaileak prozeduraren emaitzan oinarritu behar du lehiaren agintaritzaren aurrean, kolusio-zantzuengatik baztertzeko arrazoia ez da mugatzen arrazoia aplikatu behar den adjudikazio-prozedurara, botere adjudikatzaileak berariaz eta modu arrazoituan adierazi behar zuen baztertzeko arrazoia, nahiz eta EKABek ez zuen arrazoiaren berri ematen, baina ezagutzen zuen KEAOren erabakia, atzeraeragina ez da bidez, arrazoirik ez ematea ez da eragozpen izan errekurtsio funtsatu bat egiteko, ezta KEAOk egintzaren kontrol juridikoa egiteko ere. LEAk SPKLrekin bat etorri onartutako autozuzenketako neurriak, eskaintza behar bezala onartua, zehatutako enpresak LEAk ezarritako betebeharrak bete zituen eskaintzak aurkezteko epea amaitu zenerako, LEAk zehapenaren «zaintza itxeko» adierazpena egin zuen ondoren, araudia betetzeko programa nahikoa zela berretsiz, ez du garrantzirik itxiera-deklarazioa eskaintza aurkeztu ondoren egiteak. Ez da nahitaezkoa autozuzenketako neurriek beti ezartzea zehatutako jokabidearen erantzuleekin loturak haustea. Azpikontratazioa ez da, berez, lehiaren aurkako jardunbidea, eta ez du urratzen LEAk zehatutako jokabidea errepikatze debekua. EKAB: ez dago legezko betebeharririk EKABen autozuzenketarako neurriak jakinarazteko, betebeharririk ez bada estatu-arauetatik edo baldintza-agirietatik ondorioztatzen, norberaren ekimenez edo botere adjudikatzaileak eskatuta edozein unetan aurkeztearen kaltetan izan gabe, baztertzea ez da bidezkoa, baztertzeko arrazoiak egoteari



buruzko adierazpen okerra, lizitatuzaileak LEAren eta KEAoren ebazpenetan egiaztatutako zehapenak eta jokabideak adierazi behar zituen eta horrek ez luke ekarriko kontratatze debekurik onartzea, baztertzeko arrazoi bat dagoela hautematea botere adjudikatuzaileari dagokio eta, horretarako, EKABen egiazko informazioa behar du, EKAB egiteko gardentasun- eta leialtasun-printzipioak, baztertzeko erabakia kasuaren elementu guztiak kontuan hartuta hartu behar da, eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera, EKAB behar bezala ez betetzeak ez du «eragin handirik» izan adjudikazio-prozeduran, «gezurrezko informazioa» ez zen nahikoa kontratazio-organoaren erabakia aldatzeko, horrek ezin baitu ukatu KEAoren erabakia ezagutzen duela (objektu bereko eta botere adjudikatuzaile beraren lehenagoko adjudikazio-prozedura bati buruzkoa). Froga: ez da bidezkoa froga egitea, espedientea aurkeztea botere adjudikatuzailearen legezko betebeharra da, autozuzenketako neurriak aurkeztea hutsala da.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/28_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia28_2024.pdf

- 29/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 20koa.

Bazterketa. Preskripzio teknikoak; eskaintzen egokitasuna preskripzio teknikoekiko, doktrina orokorra, kontraesanak espedienteko dokumentuen artean, ez dago bateraezintasun frontalik proposamenaren eta baldintza-agirien artean.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/29_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia29_2024.pdf

- 30/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 20koa.

Adjudikazioa. Eskaintzak zuzentzea: doktrina orokorra; akatsa kontratu-borondatea islatzean (hori proposamen osoaren testuingurutik ondoriozta daiteke).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/30_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia30_2024.pdf



- 32/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 23koa.

Bazterketa. Gehieneko kontratu-prezioaren osagai bakoitzarentzat ezarritako gehieneko tasak gainditzen dituen eskaintza ekonomikoa, baldintza-agirietan argi eta garbi aipatzen dena, ez dago kontraesanik baldintza-agirietako hainbat klausularen artean; ez du garrantzirik baztertzeko erabakia adjudikazio-proposamenaren ondoren hartu izanak, egintza horrek ez duelako inolako eskubiderik sortzen, eta ez dagoelako preklusio-unerik eskaintzak prozeduran parte hartzeko arauekin duen bateraezintasuna hautemateko.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/32_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia32_2024.pdf

- 33/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 23koa.

Iragarkia eta adjudikazioa. Iragarkia eta adjudikazioa deusez deklaratzeko asmoa, errekurtsogileari adjudikazio-prozeduran sartzea galarazi diolako CPVren erreferentziako akats batek; CPV kodeak kontratuaren objektua deskribatzeko aukera ematen duten elementuetako bat baino ez dira; CPV kode oker bat aipatzeak ez du, oro har, ondoriorik; ez dago hauteman operadore ekonomiko jakin batzuen alde egiteko edo haiei kalte egiteko eskumena faltsutzeko asmorik; errekurtsuak ez du kontratuaren gainerako elementu deskribatzaileen aurkako gaitzespenik egiten, enpresak ezin du balioz argudiatu lizitazioa ez ezagutzea edo iragarkia aurkitzeko ezintasuna; iragarkiaren eta baldintza-agirien aurkako errekurtsua epez kanpokoa da; adjudikazioaren aurkako errekurtsuak ez du legitimazio aktiborik (errekurtsogileak ezin du kontratua lortu).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/33_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia33_2024.pdf

- 38/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 28koa.

Adjudikazioa. Motibazioa eta diskrezionalitate teknikoa: *hobekuntza* terminoaren adiera komuna erabiltzea SPKLren 145.7 artikuluan ezarritakoez bestelako adjudikazio-irizpideei erreferentzia egiteko, baldintza-agiriekin ez dute azpikontratazioa debekatzen, eta kontratua gauzatzen den bitartean horretara jo daiteke. Kontraesana dago baldintza-agirietako bi apartatutan jasotako informazioan, eta horrek ezin dio kalterik egin ezein lizitatzaileraren eskaintzaren balorazioari, gardentasun-printzipioa. Ebazpenaren ondorioak: adjudikazioa arrazoitzea ez dator bat baldintza-agirierekin, akatsa ez da garrantzitsua adjudikazioa aldatzeko.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/38_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia38_2024.pdf



- 39/2024 Erabakia, 2024ko otsailaren 29koa.

Adjudikazioa. Eskaintza anormala: diskrezionalitate teknikoa, hasiera batean susmagarria zen proposamena onartzeko erabakia arrazoitu egin behar da, motibazioa ez da nahikoa, eskaintza onartzearen aurkako txosten teknikoa, kontratazio-errekurtsoen inguruko organoen hainbat ebazpenetara igortzeko motibazioa, erabakigarriak ziren egitateak eta prozesu logikoa edo onartutako oinarri juridikoak ez aipatzea, epez kanpo arrazoitzea. Ebazpenaren ondorioak: jarduketan atzeraeragina, motibazio egokia egiteko.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/39_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia39_2024.pdf

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegia

Gaztela eta Leon

- 170/2023 Erabakia, 2023ko abenduaren 21ekoa. 151/2023 errek.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia baietsi da. Fundazio batek jarri zuen, bere eskaintza bidegabeki baztertu baitzen lizitazio honetan: «Servicio de asistencia técnica para la Gestión, Implantación y Coordinación del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino 2022-2025 de Puente de Domingo Flórez aprobado para este Municipio en el Marco del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea. - Next Generation UE».

Auzitegiak kontratazio-mahaiaren osaera irregularrari heltzen dio, mahaiburua alkatea bera izaki; prozedurako akatsa da. Alkateak interes-gatazka eragin du, kontratazio-espeditentean agerian geratu behar zena, eta desgaiakuntza ekarri behar zion, baztertutako fundazioaren patroizateagatik.

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak irizpena eman du auziaz (88/21 espeditentea), alkateak kontratazio-mahaia parte hartzeaz; baztertu egin du kontratazio-organismoaren titularra kontratazio-mahaiaren buru izatea, organo horrek objektibotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez bete behar dituen funtzioak oztopatu ditzakeelako hark. Arrazoibide hori aplikatu dakiokela hala eskumena arauz esleitu zaion kontratazio-organismoari, nola eskuordetze bidez esleitu zaion organismoari.

Beraz, kontratazio-organismoa alkatea bada, alkatea ezingo da egon kontratazio-mahaian.

<https://www.cccyl.es/es/tribunal-administrativo-recursos-contractuales-castilla-leo/resoluciones/resoluciones-ano-2023/resolucion-170-2023.ficheros/89375-Resoluci%C3%B3n%20170-2023%20.pdf>



Madrilgo Erkidegoa

- 126/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 21ekoa. 122/2024 erreka.

Kontratazio-araudiak ez du behartzen enpresa-hitzarmena aplikatzera lizitazio-aurrekontua finkatzeko garaian.

Hiri-hondakin solidoak biltzeko, hiri-garbiketako eta udal-garbiguneari buruzko kontratu batean, baldintza-agiriak aurkaratu dira, ez delako aplikatu lizitazio-aurrekontua kalkulatzeko erabilitakoaren ondorengo enpresako hitzarmen kolektiboa, soldata-kostuak handitzen dituen.

Errekurtsogilearen esanetan, enpresako hitzarmen berria aplikatu behar da, zenbait egun lehenago onartu zena; hori bai, aurkeztutako agirian ez dago jasota alderdiek zein egunetan izenpetu zuten, eta, orobat, ez dago jasota lan-agintaritzari aurkeztu zaionik, ezta Madrilgo Erkidegoaren hitzarmen kolektiboen, lan-itun kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroan eta gordailuan erregistratu denik ere.

Udalaren esanetan, osoko bilkurak kontratazio-prozedura onartu baino ustez sei egun lehenago izenpetutako enpresako hitzarmen kolektibo baten bidez lan-baldintzak aldatu nahi dira, eta langile-kostu handitu. Horrela eginez gero, aurreko enpresaren eta bere langileen esku utziko litzateke oinarrizko lizitazio-aurrekontua finkatzea, eta hori erabat bidegabea da.

Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiak dio ez duela eskumenik kontratistaren eta langileen artean aplikatu behar den hitzarmena zehazteko. Hala ere, adierazten du errekurtsogileak ez duela egiaztatu oinarrizko lizitazio-aurrekontuan finkatutako soldata-kostuak sektoreko hitzarmen kolektibokoak baino txikiagoak direla; beraz, Administrazioari arrazoia eman, eta errekurtsua ezesten du.

https://www.comunidad.madrid/tacp/busquedaresoluciones?field_numero_de_resolucion=126/2024&



Kontuen Auzitegia

- Gardentasun Printzipioa Fiskalizatzeko Gida.

Kontuen Auzitegiak Gardentasun Printzipioa Fiskalizatzeko Gida argitaratu du, helburu honekin: zehaztea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen zer alderdi aztertu behar diren, eta zein egiaztapen eta proba egin behar diren sektore publikoa fiskalizatzeko garaian.

https://www.tcu.es/export/sites/default/.galleries/pdf/NormasManuales/TCu_guia-Objetivo-Transparencia.pdf

- 7/2023 Erabakia, 2023ko abenduaren 5ekoa. Alkantzegatiko itzulketaren prozedura (A1082/2022 zk.), tokiko sektore publikokoa (Venturadako Udala), Madrilgo probintziaren lurralde-eremua.

Salak adierazten du ezen Gabonetako opari bat ematea udalbatzaren ohitura errepikatua izateak ez duela ohitura hori legezko bihurtzen, eta ez duela salbuesten udal-funtsen kudeatzailea kudeatzen dituen funts publikoen osotasuna bermatzeko betebeharretik. Zuzenbide publikoan, ohitura ez da zuzenbide-iturri, ezpada administrazio-araudi espezifikoan berariaz onartutako salbuespenetan, Administrazioak legezko tasun-printzipioa bete behar duenez (Espainiako Konstituzioaren 103. art.). Legez kanpoko ezer ezin daiteke betikotu, ohitura edo jardun ohiko batean oinarrituta; izan ere, ohikoa dena ez da berez legezko bihurtzen. Arauaren aurkako ohitura bat ezin daiteke inola ere hartu zuzenbide-iturritzat (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2020ko uztailaren 23ko epaia, errek.: 4072/2019, 4. OJ; Auzitegi Gorenaren 2023ko abuztuaren 25eko epaia, errek.: 779, 12. OJ; 2008ko apirilaren 22ko epaia, 6. OJ).

https://www.tcu.es/repositorio/1506d720-417c-4380-a0b7-d538bdb696fd/Sentencia_07-2023.pdf



Herri Kontuen Euskal Epaitegia

- ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 6an hartutakoa, Donostiako Udalaren Fiskalizazio Txostena (2021) behin betiko onesten duena.

Epaitegiak aldeko iritzia eman du 2021eko ekitaldiko urteko kontuez; hori bai, zenbait kontabilitate-doikuntza nabarmentzen ditu, erregistratu izan balira Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina 36,1 milioi eurotan murriztuko luketenak. Gainera, Udalaren abenduaren 31ko balantzean, Higiezin eta Lurzoru-ondare publikoaren saldoek ez dute data horretan inbentarioan sartutako ondasunen eta eskubideen egiazko egoera, eta erakunde autonomoek ez dute euskarri egokirik Higiezin zenbatekoek ondasunen eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten jakiteko. Azkenik, Udalaren balantzean ageri diren epe luzerako finantza-inbertsioen balorazioak zalantzak sortzen ditu —Sociedad Inmobiliaria Eguskiza SARI dagokionak—, sozietatearen aktiboa osatzen duten lursailik ez dutelako baloraziorik batere.

Finantza-egoerari dagokionez, Epaitegiaren esanetan, Udalak aurrezki gordina handitu du 2021ean, 2020a baino lehenagoko mailetara, eta zorra 34,7 milioi euroan murriztu du.

Udalak, bere organismo autonomo, enpresa-erakunde publiko eta sozietate publikoek 2021ean nahikoa bete dute euren jardun ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-arauketa; hori bai, akatsak hauteman dira langile-arloan (Udalak PFEZetik salbuetsitako lan-etekintzat hartu ditu ordaindu dituen erretiro aurreratuengatik primak) eta kontratazio-arloan (zerbitzuen emakida-kontratu batean eta bost zerbitzu-kontratutan, kontratu-babesik gabe betearazi da gastua; eta laguntza teknikoko kontratu batean, obrak aldatzea onartu zen, baldintza-agirietan adierazitako kontratu-objektua aldaraziz).

<https://txostenak.es/pdf/Donostia2021sin.pdf>

- ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 6an hartutakoa, Barakaldoko Udalaren Fiskalizazio Txostena (2021) behin betiko onesten duena.

Epaitegiak aldeko iritzia eman du 2021eko ekitaldiko urteko kontuez; hori bai, zenbait kontabilitate-doikuntza nabarmentzen ditu, erregistratu izan balira Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina 2,8 milioi eurotan murriztuko luketenak. Gainera, ezin izan da zenbatetsi Udalak Taller Usua Lantegia SAUri egindako lursail-lagapena dela eta sozietatearen urteko kontuetan erregistratuta egon behar litzatekeen zenbatekoa.

Udalaren finantza-egoerari dagokionez, Epaitegiaren esanetan, egoera ekonomiko-finantzarioak ona izaten jarraitzen du, nahiz eta diruzaintzako geldikin 9,6 milioi



euroan murriztu den 2020koaren aldean. Halaber, zor erabilia 2,8 milioi euroan murriztu da 2019az geroztik.

Udalak 2021ean nahikoa bete du bere jardun ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-arauketa; hori bai, akatsak hauteman dira langile-arloan (3 erakunde autonomok ez dute lanpostu-zerrendarik; EFPLren urraketa) eta kontratazio-arloan (luzatu ezin zitezkeen 5 zerbitzu-kontratu eta 1 hornidura-kontratu betearazi dira muga-eguna igaro ondoren; zerbitzuak emateko hitzarmenen gehieneko indarraldia amaitu ondoren ere gastuak egin dira; eta sozietate batek hornidura bat kontratatu du publizitate- eta lehia-printzipioei iskin eginda).

<https://txostenak.es/pdf/barakaldo2021sin.pdf>

- ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 6an hartutakoa, Zierbenako Udalaren Fiskalizazio Txostena (2021) behin betiko onesten duena.

Epaitegiak aldeko iritzia eman du ekitaldiko urteko kontuez; hori bai, zenbait kontabilitate-doikuntza nabarmentzen ditu, erregistratu izan balira Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina 142 mila eurotan murriztuko luketenak. Gainera, ezin izan da zehaztu abenduaren 31ko aktibo ez-korronteko saldoek Udalaren ondasunen eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten, eta Kontu Orokorren Memoriak ez ditu aipatzen EIOZaren likidazio bati eta ikuskapen-akta bati buruzko errekurtso batek eragindako kontingentziak, eta Zierbena Portua SAK ez zituen erregistratu hiru ondasunen doako lagapena.

Egoera finantzarioari dagokionez, dioenez, zerga-sarrerak handitu direnez, eragiketa arrunten egitura hobetu da, eta Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina handitu.

Aurrekontu-egonkortasuneko helburuei dagokienez, 2020an, bertan behera geratu ziren toki-erakundeen arau fiskalak, baina erreferentzia-tasa batzuk ezarri ziren. Txostenaren arabera, Udalak erreferentzia-tasa horiek bete ditu.

Txostenak ondorioztatzen duenaren arabera, Udalak 2021ean nahikoa bete du bere jardun ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-arauketa; hori bai, akatsak hauteman dira kontratazio-arloan (luzatu ezin zitezkeen bi kontratu betearazi dira azkenduta egon arren; hornidura eta zerbitzu bana kontratatu dira zuzenean, zegozkien adjudikazio-prozedurei iskin eginda).

<https://txostenak.es/pdf/Zierbena%202021sin.pdf>



- ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 6an hartutakoa, Arabako lurralde historikoko 2021eko Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostena behin betiko onesten duena. (2024ko urtarrilaren 8ko EHAA)

Epaitegiak aldeko iritzia eman du erakunde guzti-guztien urteko kontuez.

Epaitegiaren esanetan, 2021eko abenduaren 31ko egoera finantzarioa zuzena da. Indarreko ekitaldiko superabita, 144,9 milioi eurokoa, 2020koa baino 137,2 milioi euro handiagoa da,

diru-sarrera arrunten hazkundera dela medio. Zorpetzea 40,3 milioi euroan handitu da.

Epaitegiak aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak aztertu ditu. Ministro Kontseiluak bertan behera utzi zituen 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako arau fiskalak 2020ko urriaren 6an. AFAk Kontu Orokorrean sartutako Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Txostena igorri zien Estatuko Administrazioako Esku-hartzailetza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari.

AFAk eta gainerako erakundeek nahikoa bete dute euren jardun ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-arauketa; hori bai, akatsak hauteman dira (foru-gobernuaren kontseiluak GOFeren gastuak baliozkotu ditu -2,3 milioi euro-, Esku-hartzailetzaren txostenean adierazitakoaren aurka; eta GOFek, Indesa 2010 SLk, Centro de Cálculo de Álava SAK eta Añanako Gatz Harana Fundazioak hainbat zerbitzu eta hornidura kontratatu dituzte publizitate- eta gardentasun-printzipioei iskin eginda).

<https://txostenak.es/pdf/DFA2021sin.pdf>

- ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 6an hartutakoa, Bizkaiko lurralde historikoko 2021eko Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostena behin betiko onesten duena.

Epaitegiak aldeko iritzia eman du kontuez, salbuespen honekin: EAeko Administrazio Orokorraren zenbait sortutako transferentzia ez zeuden erregistratuta 2021eko abenduaren 31n. Transferentzia horiekin, handiagoak lirateke BFaren diruzaintzako geldikin garbi likido ukitua, diruzaintzako geldikin erabilgarria eta funts propioak, 14,4, 102,3 eta 116,7 milioi euro handiagoak, hurrenez hurren.

Epaitegiaren esanetan, BFaren 2021eko abenduaren 31ko egoera finantzarioa zuzena da. Aurrekontu-emaiza positiboa da (238 milioi euro); beraz, aurreko ekitaldiarekiko hazkundera 157,1 milioi eurokoa da. BFaren Zorpetzea 254,6 milioi euroan handitu da 2020 urtearekiko.



BFAk eta gainerako erakundeek nahikoa bete dute euren jardun ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-arauketa; hori bai, akatsak hauteman dira langile-arloan (sozietate batek bi lan-kontratu mugagabe bihurtu ditu, enplegu publikorako sarbide-printzipioak urratuta) eta administrazio-kontratazioaren arloan (kontratu bat premia-prozeduraz bete da, zegokion hasiera-agindurik eman gabe; eskumenik ez duen organo batek kontratu bat adjudikatu du; premiaz izapidetu den kontratu bat luzatu da justifikazio arrazoiturik gabe; hainbat zerbitzu kontratatu dira publizitate- eta lehia-printzipioei iskin eginda; hainbat zerbitzu-kontratuk eta esparru-akordio batek ezarritakoa baino iraupen luzeagoa izan dute).

<https://txostenak.es/pdf/DFB%202021sin.pdf>

- **ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurarena, HKEEren egoitza elektronikoa eratzea onartzen duena eta haren funtzionamendua arautzen duena. (2024ko urtarrilaren 19ko EHAA)**

HKEEk, sektore publikoko kide den aldetik, nahitaez ezarri behar ditu pixkanaka bitarteko elektronikoak eta informatikoak, harremanetan informazioaren teknologia berrien finkapena bultzatzeko. Ildo horretan, erregulazio honen xedea da Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitza elektronikoa eratzea eta haren funtzionamendu-araubidea ezartzea, erabaki honetan jasotzen den moduan.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400276e.pdf>

Hauteskunde Batzorde Zentrala

- **78/2024 ERABAKIA, 2024ko martxoaren 21eko bilkurakoa.**

Erabakiaren xedea da baimen-eskaera hau: 2024ko ekainaren 9ko Europako Parlamenturako hauteskundeetako mahaietako kideen zozketa-data aurreratzea Leongo bi udalerritan.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren iritzian, baimen-eskaera hori justifikatuta legoke baldin eta egiaztatuko balitz, ezarritakoa epeak betez gero, hauteskunde-prozesuaren kudeaketa arriskuan jartzen edo oztopatzen duten inguruabarrak daudela, betiere hauteskunde-errolda jada behin betikoa izanik. Aldiz, arrazoi partikular hutsak alegatzea, esaterako, bidaia antolatu pertsonalak egin nahi izatea, Batzorde honen iritzian, ez da aski legez ezarritako epeak aldatzea baimentzeko.

https://www.juntaelectoralcentral.es/cs/jec/doctrina/acuerdos?anyosesion=2024&idacuerdoinstruccion=128735&idsesion=1067&template=Doctrina/JEC_Detalle



Datuak Babesteko Euskal Agintaritzza

- Udal batek datu pertsonalak behar ez bezala erabiltzea. R24-005 EBAZPENA.

Agentziak ondorioztatzen du ezen zilegi dela Sopelako Udalak salaketaren egileari gutun bat bidaltzea (bere datu pertsonalekin) eta, bertan, irekiera-gailua duten edukiontzien bidez hondakinak biltzeko sistema erabiltzen ari ez dela jakinaraztea, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Zilegi da, DBEOren 6.1e) artikulua babesten duelako. Hona: «Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko».

https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/resolucion_avpd/r24_005/eu_def/adjuntos/DN23-053_RES_R24-005-eu.pdf

- Udal instalazioetan bideozaintzako kamerak modu irregularrean instalatzea R24-010 EBAZPENA.

Agentziaren esanetan, udaletxearen sarreran eta fatxadan instalatutako bideozaintzako kamerak ez zuten derrigorrezko informazio-kartelik; beraz, erabat frogatuta dago informazio-betebeharra urratu zuela.

Gainera, txikiparkearen barruko bideozaintzako kamerak, baita udal-pilotalekukoak zein udal-igerilekuetakoak ere, lege-oinarririk batere gabe jarri ziren; beraz, DBEOren 5. artikuluan ezarritako zilegitasun-printzipioa urratu zen.

Azkenik, udalerrian instalatutako bideozaintzako kamerak ez zuten segurtasun-neurri egokirik, egindako ikuskapenetatik eta Administrazioak berak egindako alegazioetatik ondorioztatzen den legez. Frogatuta geratu da bideozaintzako sistemek —batzuek— WiFi sare batera konektatzeko antenak zeuzkatela, edo sare-konexioak (zehazki, RJ45 kable bidez). Hala, mugikorraren bitartez bideozaintzako kameraren irudiak eskura zitezkeen, irudiok gordetzeko, mantentzeko, eskuratzeko eta ezabatzeko kontrolik batere gabe; beraz, DBEOren 5.1.f) artikuluan ezarritako konfidentziasun-printzipioa urratu da.

https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/resolucion_avpd/r24_010/eu_def/adjuntos/PI23-020_RES_R24-010-eu.pdf



- Legezketasun-txostena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan informaziorako eta salatzaileen babeserako barneko sistema arautzen duen dekretu-proiektua.

https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informe_legalidad_avpd/d23_009/eu_def/adjuntos/IL23-003_DIC_D23-009-eu.pdf

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Europako araudia

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko martxoaren 13ko 2024/868 (EB) Erregelamendua, Kontseiluaren 2009/917 /JAI Erabakia aldatzekoa, datu pertsonalen babesari buruzko Batasuneko arauetarako hurbilketari dagokionez. (2024ko martxoaren 27ko EBAO)

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L_202400868

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko martxoaren 13ko 2024/903 (EB) Erregelamendua, Europar Batasun osoan sektore publikoaren elkarreragingarritasun-maila handia bermatzeko neurriak ezartzen dituen (Europa Elkarreragileari buruzko Erregelamendua) (2024ko martxoaren 3ko EBAO).

https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L_202400903

Espainiako legeria

- Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, 7/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, indargabetzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak hartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1158 Zuzentarauaren transposizioa osatzeko (2019/1158 Zuzentaria, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko ekainaren 20koa, gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateragarri egiteari buruzkoa, Kontseiluaren 2010/18/EB Zuzentaria indargabetzekoa) eta langabezia-babesaren asistentzia-maila sinplifikatu eta hobetzeko. (2024ko urtarrilaren 12ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/12/pdfs/BOE-A-2024-664.pdf>



- Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 6/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan. (2024ko urtarrilaren 12ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/12/pdfs/BOE-A-2024-665.pdf>

- Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 8/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko. (2024ko urtarrilaren 12ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/12/pdfs/BOE-A-2024-666.pdf>

- 92/2024 Errege Dekretua, urtarrilaren 23koa, fruta eta barazki, mahastizaintza eta ardogintza, eta erlezaintzaren sektoreari buruzko zenbait errege-dekretu aldatzekoa, eta nekazaritza-jardueraren zein Nekazaritza Politika Erkidearen kudeaketaren zenbait alderdi arautzekoa. (2024ko urtarrilaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/24/pdfs/BOE-A-2024-1308.pdf>

- 141/2024 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen toki-erakundeen biztanleria eta lurralde-mugaketari buruzko araudia aldatzekoa. (2024ko otsailaren 7ko BOE).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan hartutako konpromisoak betetzeko, errege-dekretu berri horren helburu nagusia da SEEPren 11. osagaiaren helburuak betetzea. Hala, udal-errol-detako datuetan gerta daitezkeen aldaketen komunikazioa hobetu nahi da udalen eta Estatistikako Institutu Nazionalaren artean, denbora errealean izan dadin, erroldak eta Estatistikako Institutu Nazionala elkarkonektatuta egoteagatik.

Gainera, arau berriaren bidez, Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde-mugaketari buruzko Araudiaren artikulazioa egokitu da azken urteetako arau-berritasunetara, araudi horren edukari eragin diote eta.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/07/pdfs/BOE-A-2024-2248.pdf>



Euskal Autonomia Erkidegoa

- 12/2023 LEGEA, azaroaren 23koa, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzkoa. (2023ko abenduaren 7ko EHAA)

Lege horrek, 6. artikuluan, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen arloan, udalerriei eskumenak esleitzen dizkie. Nahitaezko zerbitzua da hori 20.000 biztanletik gorako udalerrietan Halaber, ezartzen du zerbitzu horiek ematek salbuesteko eskatu ahal izango zaiola dagokion lurralde historikoko foru-aldundiari, bi administrazioek adosten duten moduan, zerbitzuaren kudeaketan koordinazioa eta efizientzia bermatze aldera.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305444e.pdf>

- 13/2023 LEGEA, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena. (2023ko abenduaren 12ko EHAA)

Lege horren xedea da, besteak beste, elkarlanaren ikuspegitik, administrazio publiko guztiak koordinatuta eta inplikaturik dauden beste eragile batzuekin batera lan egitea, herritarren osasuna babesteko, osasuna eta ingurune eta bizimolde osasungarriak bultzatzeko eta herritarrengan eragina duten osasunaren determinatzaileetan eragin positiboa izateko.

Zehazki, 34. artikuluan udal-eskumenak aipatzen dira; bestalde, 30. artikuluan xedatzen da toki-, eskualde- eta foru-erakundeek beren osasun-estrategia edo -plana diseinatzeko eta onesteko ahala izango dutela, ingurunearen eta biztanleriaren berezitasunak kontuan hartuta.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305490e.pdf>

- 14/2023 LEGEA, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa. (2023ko abenduaren 15eko EHAA)

Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak euskal kultur ondarearen hiru babes-maila ezartzen bazituen ere (babes berezia, babes ertaina eta babes oinarrizkoa), ez zuen zehazten zein irizpideren arabera toki-balioko elementu batek lor zezakeen babes oinarrizkoaren kategoria.

Horrenbestez, arau berriak alderdi horri heltzen dio eta kultur ondasun higiezin batek babes-maila oinarrizkoa izateko irizpideak aipatzen ditu; hau da, zaharberritze zientifikoa edo kontserbatzailea merezi izateko irizpideak.

Halaber, energia-iturri berriztagarriak gero eta gehiago erabiltzen direnez, Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatu behar da, energia-iturri horiek kokatzeko ondareko ondasun



higiezinetan. Hala, babes berezia, ertaina eta oinarrizkoa duten kultur intereseko ondasunetan energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoko sistemak instalatu nahi badira, ondare-inpaktuari buruzko ebaluazio-azterketak egin beharko dira.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305570e.pdf>

- 15/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena (2023ko abenduaren 29ko EHAA)

Subsidiaritasun-printzipiotik eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legetik abiatuta, eskumen propioa ematen die udalerriei tokiko enplegu- eta garapen-planen esparru materialean, eta, era berean, aukera aitortzen die udalerrriaren garapen sozial eta ekonomikoari lotutako enplegua sustatzeko ekintzak eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko ekintzak gauzatzeko (67. artikulua).

Halaber, udalerriek enplegu-zerbitzu jakin batzuk emateko aukera dutela ere ezartzen du legeak (50. artikulua).

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305767e.pdf>

- 20/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa. (2023ko abenduaren 29ko EHAA)

Lege hau EAeko Administrazio Orokorraren esparruan aplikatu arren, 15. artikulua xedatzen du foru- eta toki-administrazioetako organoek eta haien sektore publikoko entitateetako organoek sarbidea izango dutela erregistrora, eta hura erabili ahal izango dutela beren dirulaguntzen deialdiak eta dirulaguntzak emateko ebazpenak argitaratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen baldintza berberetan, eta ez dute horretarako bitarteko juridikorik formalizatu beharko.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305769e.pdf>

- 21/2023 LEGEA, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. (2023ko abenduaren 29ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305770e.pdf>



- 17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena. (2024ko urtarrilaren 4ko EHAA)

Toki-erakundeei dagokienez, Legearen bidez, udaleko hezkuntza-kontseiluak sortzen dira, ikastetxeen hurbileko jarduerari lotutako zenbait eginkizun garrantzitsuz hornituta.

Legeak xedatzen du ikastetxe bat edo gehiago dauden udalerrietako toki-administrazioek, udaleko hezkuntza-kontseiluak eratu ahal izango dituztela. Horien helburua izango da hezkuntza-proiektu komunitarioak antolatzea eta bultzatzea, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatzuz, erregelamenduz zehazten diren eskumenei jarraikiz.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/01/2400037e.pdf>

- 16/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena. (2024ko urtarrilaren 4ko EHAA)

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araudiaren antolamendua eta funtzionamendua hauetara egokitzea: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/01/2400036e.pdf>

- 18/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzekoa. (2024ko urtarrilaren 4ko EHAA)

Arau honen xede nagusia da argitzea hirigintzako lizentziak, onarpenak eta baimenak eteteko epeen zenbaketa, hirigintza-planak egiteko edo, hala badagokio, aldatzeko edo berrikusteko.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/01/2400038e.pdf>



- 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena. (2024ko otsailaren 21eko EHAA)

Toki-erakundeei dagokionez, 18. artikulua xedatzen duenaren arabera, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, beren eskumenen esparruan, klima- eta energia-planak onartu beharko dituzte; plan horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa jaso beharko dute, eta klimaren aldagaia txertatu beharko dute, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegitik, lege honen xede eta edukiarekin bat etorrita.

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek banan-banan edo eskualdeka egin ahalko dituzte klima- eta energia-planak.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2400901e.pdf>

- 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena. (2024ko otsailaren 29ko EHAA)

Legeak EAEko udalerriek dituzten eskumen propioak errespetatzen ditu, eta, ondorioz, baita eskumen horiek egikaritzearekin lotutako eginkizun edo ahalmen guztiak ere, udal-autonomia babesteko esleitzen zaizkienak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401066e.pdf>

- 3/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarako eta Elkartasunerako. (2024ko otsailaren 29ko EHAA)

Lege honen helburua da EAEko lankidetzeta eta elkartasuna bultzatzea, jarduera, gaitasun, baliabide eta balio solidarioen multzo modura ulertuta, zeina EAEk, Hegoaldeko eragileekin batera, erabiltzen baitu giza garapena eta bizitzeko jasangarritasuna, justizia globala lortzeko eta prozesu demokratikoetan, bakegintzan eta munduko herrialdeen bizikidetzan sakontzeko.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401067e.pdf>

- 4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. (2024ko otsailaren 29ko EHAA)

Lege honen xedea da pertsona transei eta intersexualei bermatzea EAEko administrazio publikoetatik arreta integrala eta hezkuntzako, osasuneko, arlo juridikoko eta bestelako beharrietara egokitua jasotzeko eskubidea, gainerako herritarrek jasotzen duten baldintza



beretan, bai eta babesa ematea ere, beren askatasuna erabil dezaten, oro har, bizitza sozialeko eremuetan eta, bereziki, zerbitzu publikoetan.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401068e.pdf>

- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea. (2024ko martxoaren 8ko EHAA)

Dekretu honen xedapenak EAEko sektore publikoaren zerbitzuko langile funtzionarioei aplikatuko zaizkie, bai eta haren zerbitzuko lan-kontratuko langileei ere, hala dagokienean. Dekretu honen ondorioetarako, EAEko sektore publikoan sartuta daude, orobat, toki-erakundeak.

Hori horrela, dekretuak hizkuntza ofizialak kontratazio publikoko prozeduretan erabiltzeko irizpideak arautzen ditu, eta adierazten du kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, eta, hala dagokionean, behar diren baliabide ekonomikoak ere, betiere baldintza hauek betez:

a) Kontratuaren objektuak aplikagarri zaion hizkuntza-normalizazioaren arloko araudia bete beharko du.

b) Kontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa. Horretarako, kontratazio-organoei kontratua betearazteko baldintza berezi gisa ezarriko dute herritarrei hautatu duten hizkuntza ofizialean arreta bermatzeko plan bat egitea.

Administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira. Dokumentu grafiko edo teknikoak hizkuntza ofizialetako batean idatzi ahal izango dira.

Era berean, kontratazio-prozedura arautzen duten agiriak, kontratuaren objektua kontuan hartuta, hizkuntza-normalizazioaren arloan kontratua gauzatzeko baldintzak ezarriko dituzte.

EAEko sektore publikoko entitateek pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz, gutxienez, idatziko dira. Diruz lagundutako jarduerak berekin badakar herritarrekin zuzeneko harremana izatea, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzeko eskubidea.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/03/2401222e.pdf>



- 24/2024 DEKRETUA, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk eta horien guztien hornidura arautzen dituen. (2024ko martxoaren 19ko EHAA)

Dekretuaren 3. artikulua xedatzen duenaren arabera, udaltzaingoa duen toki-erakunde bakoitzak behar diren neurriak hartuko ditu bitarteko tekniko eta defentsako ekipoa aurreikusitako zereginetarako egokiak izan daitezen eta, aldi berean, horiek erabiltzen dituzten pertsonen segurtasuna eta osasuna berma daitezen. Horien erabilera eta mantentzea erakunde horien araudi espezifikoan xedatutakora egokituko dira, bai eta, hala badagokio, bitarteko horietarako dauden gomendio tekniko-zientifikoetara ere.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/03/2401389e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

- Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2024 Zerga premiazko araugintzako dekretua, otsailaren 20koa. Onespena ematea Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere. (2024ko otsailaren 28ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/025/2024_025_00578_E.pdf

- 5/2024 Foru Araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra onartzen duena. (2024ko martxoaren 13ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/031/2024_031_00704_E.pdf

- 6/2024 Foru Araua, martxoaren 13koa, 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa, baliozkotzeko dena, onspena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere. (2024ko apirilaren 5eko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/039/2024_039_01039_E.pdf



Bizkaiko Lurralde Historikoa

- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren martxoaren 7ko 1960/2024 FORU AGINDUA, 2025eko zerga itunduetango Bizkaia Lurralde Historikoko Udalerrien partaidetza zehazterako beharrezko informazioa zuzkitzeko toki erakundeek erabili behar duten eredia onartuz. (2024ko martxoaren 15eko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/03/15/I-316_eus.pdf?hash=99b6fcd9f8fb14a2fdffcbbeee70da4

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 57/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektorre Publikoaren Etika Instituzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituena. (2024ko urtarrilaren 8ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/01/08/c2309692.pdf>

- 11/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baita 614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. (2024ko urtarrilaren 22ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/01/22/c2400337.pdf>

- 1/2024 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa, aldatzen duena. (2024ko urtarrilaren 23ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/01/23/c2400447.pdf>

- 1/2024 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzko uztailaren 4ko 12/2023 Foru Dekretua aldatzen duena. (2024ko urtarrilaren 24ko BOG)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/01/24/c2400482.pdf>



- 16/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 23koa, perituen tasazio kontrajarrietan esku hartzeko balorazio zerbitzuen ordainsari estandarizatuak ezartzen dituen. (2024ko urtarrilaren 26ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/01/26/c2400480.pdf>

- Ebazpena, 2024ko otsailaren 7koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 2/2023 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 28koa, aurrekontuen luzapenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten duena eta zerga eta aurrekontu arloan premiazkoak diren zenbait neurri onesten dituen. (2024ko otsailaren 9ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/02/09/c2400943.pdf>

- 12/2024 Foru Dekretua, otsailaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak luzatzeari buruzkoa. (2024ko otsailaren 27ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/02/27/c2401322.pdf>

- 13/2024 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan egoki jarduteko aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua gure ordenamendura ekartzeko. (2024ko martxoaren 1eko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/03/01/c2401504.pdf>



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Nafarroako Foru Komunitatea

- 1/2024 Foru Legea, otsailaren 7koa, Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzkoa (2024ko otsailaren 16ko NAO)

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5956728>

- 1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena balio erantsiaren gaineko zergari buruzko erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia. (2024ko otsailaren 26ko NAO)

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5956747>

- 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2024ko martxoaren 14ko NAO)

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5956794>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Andaluziako Autonomia Erkidegoa

- 12/2023 Legea, abenduaren 26koa, Andaluziako Autonomia Erkidegoaren 2024rako Aurrekontuari buruzkoa. (2024ko urtarrilaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/09/pdfs/BOE-A-2024-447.pdf>

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

- 2/2023 Lege Dekretua, azaroaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 11/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren kontratazio publikoaren erabilera estrategikoari buruzkoa. (2024ko urtarrilaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/05/pdfs/BOE-A-2024-282.pdf>



- 17/2023 Legea, abenduaren 22koa, Aragoiko Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontuei buruzkoa. (2024ko urtarrilaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/18/pdfs/BOE-A-2024-903.pdf>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

- 1/2024 Legea, otsailaren 16koa, Balear Uharteetako bederatzi lekura arteko ibilgailuen bidezko garraio-zerbitzuen araudia hobetzekoa. (2024ko martxoaren 25eko BOE)

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-5884

Kantabriako Autonomia Erkidegoa

- 2/2023 Legea, abenduaren 26koa, Kantabriako Autonomia Erkidegoaren 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2024ko urtarrilaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/25/pdfs/BOE-A-2024-1372.pdf>

- 3/2023 Legea, abenduaren 26koa, zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa. (2024ko urtarrilaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/25/pdfs/BOE-A-2024-1373.pdf>

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, desgaitasuna duten pertsonen bizi-proiektuari Gaztela eta Leonen laguntzekoa (2024ko martxoaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/03/05/pdfs/BOE-A-2024-4289.pdf>

- 2/2024 Legea, martxoaren 15koa, Gaztela eta Leonen jokia eta apustuak arautzen dituen ekainaren 24ko 4/1998 Legea aldatzekoa. (2024ko apirilaren 8ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/08/pdfs/BOE-A-2024-6864.pdf>



Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- **3/2023 Lege Dekretua**, azaroaren 7koa, erabilera turistikoko etxebizitzaren hirigintza-araubideari buruzko presako neurriak ezartzekoa. (2024ko urtarrilaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/05/pdfs/BOE-A-2024-281.pdf>

- **11/2023 Legea**, abenduaren 27koa, asoziazionismoa sustatzekoa. (2024ko urtarrilaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/01/09/pdfs/BOE-A-2024-446.pdf>

- **4/2023 Lege Dekretua**, abenduaren 19koa, aurrekontuak luzatuta dituen sektore publikoaren premia finantzarioei buruzkoa eta sektore publikoa, administrazio-jarduna arintze aldera, berregituratzeko neurri buruzkoa. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/12/pdfs/BOE-A-2024-2530.pdf>

- **INT/360/2024 Ebazpena**, otsailaren 8koa, 2024. urtean izango diren zirkulazio-murrizketak ezartzen dituena. (2024ko martxoaren 1eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/03/01/pdfs/BOE-A-2024-3943.pdf>

- **1/2024 Lege Dekretua**, otsailaren 13koa, Kataluniako askitasun-errentaren adierazlea handitzekoa, Kataluniako herritarren premia eta gabetasun ekonomikoko egoerak arintze aldera. (2024ko martxoaren 28ko BOE)

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-6219

- **1/2024 Legegintzako Dekretua**, martxoaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baita Kataluniako zerga-kodearen seigarren liburua, Kataluniako tributu eskuordetuen arloan indarrean diren manuen testu bategina barne hartzen duena. (2024ko apirilaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/09/pdfs/BOE-A-2024-6951.pdf>



Galiziako Autonomia Erkidegoa

- 7/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Galizian emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzekoa. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/13/pdfs/BOE-A-2024-2663.pdf>

- 8/2023 Legea, abenduaren 14koa, Galiziako artisautzari buruzkoa. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/13/pdfs/BOE-A-2024-2664.pdf>

- 1/2024 Legea, urtarrilaren 11koa, Galiziako elikagai-kalitateari buruzkoa. (2024ko otsailaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/14/pdfs/BOE-A-2024-2778.pdf>

- Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua erreforma, 2024ko otsailaren 15ekoa. (2024ko otsailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/17/pdfs/BOE-A-2024-3099.pdf>

Errioxako Autonomia Erkidegoa

- 1/2024 Legea, urtarrilaren 24koa, Errioxako paisaia babesteko behin-behineko eta presako neurriak ezartzekoa. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/13/pdfs/BOE-A-2024-2665.pdf>

Madrilgo Autonomia Erkidegoa

- 14/2023 Legea, abenduaren 20koa, Madrilgo Erkidegoko Zibersegurtasuneko Agentzia sortzen duena. (2024ko martxoaren 21eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/03/21/pdfs/BOE-A-2024-5611.pdf>

- 12/2023 Legea, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez aldi baterako aldatzen baita ondarearen gaineko zergaren hobaria Madrilgo Erkidegoan, fortuna handien elkartasunerako zergaren indarraldian. (2024ko martxoaren 21eko BOE)



https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-5609

- 13/2023 Legea, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Estatuak lagatako zergen arloan Madrilgo Erkidegoak emandako lege-xedapenen testu bategina —urriaren 21eko 1/2010 Legegintza Dekretuaren bidez onartua—, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eskala autonomikoa, gutxieneko pertsonala eta familia-gutxienekoa, autonomia-kenkarien zenbatekoak eta horiek aplikatzeko errenta-mugak deflatatzeko. (2024ko martxoaren 21eko BOE)

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-5610

Valentziako Autonomia Erkidegoa

- 7/2023 Legea, abenduaren 26koa, Generalitatearen zerga-neurriena, administrazio- eta finantza-kudeaketarena eta antolaketarena. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/13/pdfs/BOE-A-2024-2666.pdf>

- 8/2023 Legea, abenduaren 27koa, Generalitatearen 2024rako Aurrekontuena. (2024ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/02/13/pdfs/BOE-A-2024-2667.pdf>



JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Hirugarren Sala), 2023ko abenduaren 14koa.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi du tratamenduaren erantzulearen ardura dela hartu diren babes-neurrien egokitasuna frogatzea, hirugarrenek (zibergaizkileek) datu pertsonalak bidegabe jakinarazten edo eskuratzen dituzten kasuetan.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?jsessionid=0D4F47F304C141C0740238B36D5D1CBC?text=&docid=280623&pageIndex=0&doclang=ES&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=2787380>

JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Hirugarren Sala), 2024ko otsailaren 22koa.

Epaia sorburua hiru auzitan sortutako eztabaidak dira. Bi lehenetan, demandatzaile bakoitzak, kontratu mugagabe ez-finkoko langilearen izaera judizialki eskuratu, eta egoera horretan luzaz egon ondoren, finko deklaratzeko eskatzen du. Hirugarren auzian, alderdi demandatzaileak, aldi baterako kontratuak bata bestearen ondotik pilatu ondoren, hutsune bat betetzeko behin-behinekotasun kontratuaren indarraldian, izaera finko hori bera eskatzen du.

Eztabaida horiek arazo prejudizial bana eragin zuten, eta, «antzekoak» izanagatik, asko dira egindako galderak. Galdera sorta horren konplexutasuna kontuan hartuta, EBJAK multzokatu egin ditu erantzuna emateko.

Lehen arazo prejudiziala, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatua

Lehen arazo horietan, ebazten dena da ea esparru-akordioak kontratu mugagabe ez-finkoko langileei eragiten dieten. Horri dagokionez, salak ondorioztatu du kontratu mugagabe ez-finkoak azkentzeko kausa dela alderdi erabakigarria; izan ere, «kasuan kasuko administrazioak nahitaz jarraitu behar dio kontratu mugagabe ez-finkoko langileak betetzen duen lanpostua betetzeko prozedurari, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren konstituzio-printzipioak aplikatuta. Behin lanpostua betea, langilearen kontratu mugagabe ez-finkoa azkendu egiten da, salbu eta langileak berak prozeduran parte hartu eta aipatu lanpostuaren esleipena lortu badu».



Bigarren arazo prejudiziala, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatua

Bigarren arazo prejudizialean —C-59/22 eta C-110/22 auziak—, EBJAk, IMIDRA auzian bezala, hauxe ondorioztatzen du: «Esparru-akordioaren 5. klausula interpretatzeko, kontuan hartu behar da “iraupen mugatuko kontratuen edo lan-harremanen erabilera jarraitua” esamoldeak, aipatu xedapenean ageri denak, adierazten duela langile hori aipatu administrazioa lotzen duen iraupen mugatuko kontratua automatikoki luzatu dela, kasuan kasuko administrazioak ez duelako kontratu mugagabe ez-finkoko langileak betetzen duen lanpostua behin betiko betetzeko hautapen-prozesuaren deialdirik egin ezarritako epean».

Hirugarren, laugarren eta bosgarren arazo prejudizialak, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatuak

Hirugarren, laugarren eta bosgarren arazo prejudizialei dagokienez —C-59/22 eta C-110/22 auziak—, Madrilgo JANak ebazten du, Langileen Estatutuaren 15.5 artikuluan xedatzen den konfigurazioa kontuan hartuta (2021eko erreformaren aurrekoa), ez dela 5. klausulako a)-c) letretan adierazitako neurrietako ezain ezartzen, ezta «neurri baliokiderik» ere, kontratu mugagabe ez-finkoen erabilera abusuzkoa ekiditeko.

C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatutako hirugarren, laugarren eta bosgarren arazo prejudizialei erantzunez, hauxe ondorioztatzen du:

«Esparru-akordioaren 5. klausularen 1. apartatuko a)-c) letrak honela interpretatu behar dira: xedapen horretan jasotako neurrietako ezain eta “neurri baliokiderik” ere ez ezartzen ez duen estatu-araudi baten aurkakoak dira, haren ondorioetarako, kontratu mugagabe ez-finkoen erabilera abusuzkoa ekiditeko».

Seigarren eta zazpigarren arazo prejudizialak, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatuak, eta lehen eta bigarren arazo prejudizialak, C-159/22 auzian planteatuak

Auzi horietan, funtsean, ebazten dena da ea lan egindako urteko 20 eguneko kalte-ordain tasatua (urtebeteko mugarekin) 5. klausulara egokitzen denetz, lanpostua araz betetzeagatik azkentzen bada kontratua. EBJAk, orobat, baztertu egiten du. Hauxe dio: «Kontratua azkentzeagatik kalte-ordaina emateak ez da aski esparru-akordioaren 5. klausularen helburua betetzeko; alegia, iraupen mugatuko kontratuen erabilera jarraituaren ondoriozko abusa ekiditea». Baike, kalte-ordaina emateak ez du ikustekorik iraupen mugatuko kontratuen erabileraren izaera zilegi edo abusuzkoarekin.



Beraz, neurri hori ez da egokia iraupen mugatuko kontratuen edo lan-harremanen erabilera abusuzkoa behar bezala zehatzeko eta Batasuneko Zuzenbidea urratzearen ondorioak desagerrarazteko. Hala bada, ez dirudi neurri nahikoa eraginkorra eta eragozgarria denik berez, esparru-akordioaren arabera hartutako neurrien eraginkortasun erabatekoa bermatzeko».

Zortzigarren eta bederatzigarren arazo prejudizialak, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatuak, eta hirugarren arazo prejudiziala, C-159/22 auzian planteatua

Salaren esanetan, «esparru-akordioaren 5. klausula honela ulertu behar da: estatu-xedapen batzuen aurkakoa da; izan ere, horien arabera, “jarduketa irregularrek” administrazio publikoei erantzukizunak eskatzea ekarriko dute, “administrazio publiko horietako bakoitzean indarrean den araudiari jarraikiz”, estatu-xedapen horiek ez badira nahikoa eraginkorrak eta eragozgarriak, aipatu klausularen arabera hartutako neurrien eraginkortasun erabatekoa bermatzeko».

Hamabigarren arazo prejudiziala, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatua, eta seigarren arazo prejudiziala, C-159/22 auzian planteatua

Arazo prejudizial horietan, funtsean, planteatzen dena da ea 5. klausula estatu-araudi baten aurkakoa denetz, araudi horrek ezartzen badu aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen deialdia egitea, aldi baterako langileek —tartean, kontratu mugagabe ez-finkoa duten langileak— betetako lanpostuak betetzeko deialdi publikoen bitartez.

Hauxe ondorioztatzen du: «Esparru-akordioaren 5. klausula honela ulertu behar da: aldi baterako langileek —tartean, kontratu mugagabe ez-finkoa duten langileak— betetako lanpostuak betetzeko deialdi publikoak egitearen bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen deialdia egitea ezartzen duen estatu-araudiaren aurkakoa da, deialdi horrek ez badu ikustekorik deus iraupen mugatuko kontratu horien erabileraren izaera abusuzkoarekin».

Hamargarren eta Hamaikagarren arazo prejudizialak, C-59/22 eta C-110/22 auzietan planteatuak, eta laugarren eta bosgarren arazo prejudizialak, C-159/22 auzian planteatuak

Arazo prejudizial horietan, funtsean, planteatzen da ea, aurreko neurri horiek guztiak hartu ezean, finko bihurtzea erantzun egokia denetz, are bihurtzea Espainiako Konstituzioaren 23.2 eta 103.3 artikuluen aurkakoa bada ere, horixe ebatzi baitu Auzitegi Gorenak. Horri dagokionez, EBJaren arabera, neurri bat «izan liteke» (*sic*).

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=283045&pageIndex=0&doClang=es&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=3514253>



Konstituzio Auzitegia

Auzitegi Gorena

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4905/2023) Auzitegi Gorenaren 976/2023 Epaia, 2023ko azaroaren 15ekoa. Gizarte-arloko Sala.**

Salak erretiro aurreratua eta erretiro partzialaren ondoriozko primei buruzko doktrina gogorarazi du. Baiki, salak ondorioztatzen du, Sala Nagusiaren 2010eko abenduaren 20ko KAEko kasuan bezala, ezin daitekeela ulertu 2008-2011 aldiko akordio arautzailearen 95. eta 96. artikulua, erretiro «aurreratua» ondoriozko zenbait prima ezartzen dituztenak, errekurtsu honetako erretiro «partzialean» aplikatzeko direnik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/24449a8af04fb685a0a8778d75e36f0d/20231201>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 918/2024) Auzitegi Gorenaren 247/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak kasazio-doktrina hau finkatu du: Itsasertzaren hirigintza-antolamenduko planak, antolatzen den eremua eragin-eremuan soilik badago eta kasuan kasuko planaren zehaztapenek jabari publikoan eta jabari horren zortasun-eremuetan eragina badute, nahitaezko txostena egin behar dute, Kosten Legearen 117. artikuluari jarraikiz. Hori bai, jabari publikoari eta sarbide- eta igarobide-zortasunei buruzko alderdian (edo beste sektore-eskumen batzuetatik erator litezkeenetan) bakarrik izango da loteslea, eta ez da loteslea izango babes-zortasunari buruzkoetan edo eragin-eremuari buruzkoetan.

1988ko Kosten Legearen hirugarren xedapen iragankorraren 3. apartatua honela ulertu behar da: Kosten Legea indarrean jarri aurretik hiri-lurzorua gisa formalki sailkatutako eta eragin-eremuan sartutako lursailen hirigintza-antolamenduak Kosten Legearen 30. artikuluan ezarritako irizpideak bete behar ditu, baldin eta indarrean jarri zen datan ez bazen ezein hirigintza-aprobetxamendu finkatu lursail horietan, data horretan hasita ez egoteagatik hirigintza-eraldaketako ezein jarduketan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c44d89eec34a3c72a0a8778d75e36f0d/20240301>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 170/2024) Auzitegi Gorenaren 61/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala

Auzitegi Gorenak antolamenduz kanpo egoteari buruzko jurisprudentzia-doktrina berretsi du. Hala, adierazi du antolamenduz kanpo egotearen antzeko egoeran dauden eraikinei eman nahi zaizkien erabilerak edo eraikin horietan egin nahi diren jarduketak ezin direla izan antolamenduak kasuan kasuko eremurako baimendutakoen kontrakoak, eta, gainera, horietan ezingo dela obrarik egin berariaz baimendutakoez haraindi (higiezinaren higie, apaindura eta kontserbazioagatik beharrezkoak diren konponketa txikiak, eta segurtasun-baldintzei eusteko asmoa duten obrak).

Jarraian, hauxe ohartarazten du: hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko ekintza iraungitzearen ondorio juridiko bakarra da obraren jabeari aitortzea sortu den egoerari eusteko ahalmena; alegia, jada eraikita dagoena eraisteko saiakera orori aurka egin ahal izatekoa. Halaber, aukera izango du, neurri batean, obrak egiteko, ez, ordea, berariaz baimendutakoez haraindi (esan bezala, higiezinaren higie, apaindura eta kontserbazioagatik beharrezkoak diren konponketa txikiak, eta segurtasun-baldintzei eusteko asmoa duten obrak).

Azkenik, hauxe adierazten du: hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko ekintza gauzatzeko aukera iraungi bada, eta, ondorioz, eraikina antolamenduz kanpoko egoeraren parekoan badago, jabeak, bere borondatez eta era askean, antolamenduz kanpokoaren pareko araubide honetan baimenduta eta onartuta dauden obrez bestelakoak egiten baditu, agerikoa denez, horiek egiteko lizentzia aurretiaz lortu gabe, jarduketa hori aztertu eta hirigintza-antolamendu juridikoaren urraketatzat kalifikatu beharko da berriro ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ed227a25607477b9a0a8778d75e36f0d/20240216>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 427/2024) Auzitegi Gorenaren 82/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kasazio-errekurtso honen inguruko eztabaida juridikoan ebatzi nahi dena ea ordenantza fiskal batek —hiri-hondakin solidoak bildu, deuseztatu edo tratatzeko zerbitzuaren tasak— zergapeko jarduketa bakoitzak sortutako hondakin-bolumenaren aurretiazko zehaztapena behar duenez zerga-kuota kalkulatzeko.

Salak kasazio-doktrina hauxe finkatzen du: hondakin-bolumena eta hondakinak deuseztatze edo tratatzeko kostua oinarritzko elementuak dira bilketa, deuseztatze edo tratatzeko zerbitzuaren tasan; beraz, egoki adierazi behar dira finantza-memorian, kostua zehazteko ez ezik, zergadunei gaitasun ekonomiko, baliokidetasun eta proportzionaltasunaren irizpideen arabera egozteko eta banatzeko irizpideak bermatzeko ere.



Alabaina, tasaren sortzapen-datan aplikatzekoa den araudia kontuan hartuta, baliokidetasun-printzipioak ez du eskatzen hiri-hondakin solidoak bildu, deuseztatu edo tratatzeko zerbitzuaren tasaren mende dagoen jarduketa bakoitzak sortutako hondakin-bolumena aurretiaz eta banan-banan zehazteko, zerga-kuota kalkulatzeko aldera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/669c02334c525b93a0a8778d75e36f0d/20240209>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 174/2024) Auzitegi Gorenaren 84/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Jurisprudentzia eratzeko kasazio-interes objektiboa duen alderdia da zehaztea ea udal-administrazioak dirua enbargatu edo enbargoa agindu dezakeenetz, udal-mugartetik kanpoko finantza-erakundeen sukurtsaletan irekitako kontuetakoa bada, eta udal-administrazioak, enbargoa egiteko, ez badu jarduketarik egin behar aipatu udalerrriaren lurraldetik kanpo, edo, kontrara, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.3 artikuluari jarraikiz, jarduketa hori egiteko eskatu behar dien dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunei edo estatuko organo eskudunei, zer dagokion.

Kasazio-intereseko auziari erantzuteko, adierazi behar da udal-administrazioak ezin duela dirua enbargatu edo enbargoa agindu, udal enbargatzailearen udal-mugartetik kanpoko finantza-erakundeen sukurtsaletan irekitako kontuetakoa bada, ezta udal-administrazioak, enbargoa egiteko, ez badu jarduketarik egin behar aipatu udalerrriaren lurraldetik kanpo ere. Halakoetan, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.3 artikuluari jarraikiz, jarduketa hori egiteko eskatu behar die dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunei edo estatuko organo eskudunei, zer dagokion.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/48cb0e3bb39133faa0a8778d75e36f0d/20240201>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 417/2024) Auzitegi Gorenaren 97/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Eztabaidagaia hauxe da: ea bitarteko estatutupeko langileei karrera gradua aitortu dakiekeenetz, beste osasun-zerbitzu batean emandako zerbitzua dela medio. Horretarako bi erregimenak konparatu behar dira, estatutupeko langile finkoena eta bitartekoena.

Salak ohartarazten du, jurisprudentziaren arabera, behin-behinekotasunak ez duela berez justifikatzen langile finkoei ez bezalako tratua ematea; hala, esparru-akordioaren arabera, lanbide-baldintzen berdintasuna aldarrikatzen da, lanbide-karrerako eskubidea bere estatutuaren arabera aitortu bezain laster. Behin-behinekotasunak ez du eragozten tratu



berdina, gradu-igoera aitortzearen ondorioetarako, beste osasun-zerbitzu batean emandako zerbitzuari dagokionez. Baiki, langile horrek ez du baliatuko mugigarritasunerako eskubidea, baina beste osasun-zerbitzu batean ezagutza edo esperientzia baliotsuak eskuratutakoa izan liteke, karrera-gradua aitortzearen ondorioetarako, eta, langile finkoetan bezala, egon litezke beste elementu baloragaitz batzuk, «zerbitzu ematen duten erakundearen helburuez» bestelakoak direnak, eta deialdiak egiten dituenak.

Beraz, Auzitegi Gorenak hauxe ondorioztatzen du: bitarteko estatutupeko langileen kasuan, lanbide-karreraren gradua aitortzearen ondorioetarako, esparru-akordioaren 4. klausularen arabera, aitortza horretarako behar den zerbitzu-denbora kasuan kasuko langilea izendatzen duen osasun-zerbitzuan igarotakora mugatu behar da, muga hori langile finkoari ere jartzen bazaio; aldiz, diskriminazioa gertatuko da estatutupeko langile finkoak gradu-igoera lortzeko behar duen zerbitzu-denbora Estatuko Osasun Sisteman igarotako zerbitzu-denborari badagokio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/45bf420f0804371ca0a8778d75e36f0d/20240209>

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: KAE 422/2024) Auzitegi Gorenaren 138/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 29koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kasazio-intereseko alderdiari erantzunez, salak adierazten du kontratuak suntsiarazteko prozedurak prozedura autonomoak direla. Lege aplikagarrietan ez bada ezartzen suntsiarazte-prozedura izapidetu eta ebazteko iraungipen-epe berariazkorik, horien ordezt 39/2015 Legea aplikatu beharko da.

Eztabaidagai den auzian, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 212.8 artikuluari, kontratuak suntsiarazteko espedienteak zortzi hilabeteko gehieneko epean bideratu eta ebatzi behar direla ezartzekoari, konstituzio-kontrako iritzi zion eta ordenamendu juridikotik kanpo laga zuen Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 18ko 68/2021 Epaia. Beraz, berariazko lege-xedapenik ezean, 39/2015 Legearen 21.3 artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea aplikatu behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d44c3b406a7a8188a0a8778d75e36f0d/20240209>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 590/2024) Auzitegi Gorenaren 148/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: Izapide-egintza bat edo izapide-egintza kualifikatu bat halakotzat jotzearen gaineko auziak ez du erantzun bakar bat, kasu guztietarako balio duena; aldiz, kasuan-kasuan ñabartu behar da, tartean diren inguruabarren azterketa partikularizatua eginez, batik bat haien xedeari eta hedadurari buruzkoena, egintza horrek AAJLren 25. artikuluan eta APELen 112.1 artikuluan deskribatzen diren ondoretakoren bat sortzen duenez erabakitzeko; alegia, izapide-egintzat jotzeko, eta, hala, prozedura ebazteko egintzarekiko modu autonomo eta berezian aurkaratu ahal izateko.

Eztabaidagai den auzian, salak ondorioztatzen du Enplegu Zerbitzu Publikoak martxoaren 23ko 395/2007 Dekretuaren 17. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren babesean emandako ebazpenak —hobari gisa bidegabe aplikatutako kenkariei dagokien zenbatekoa sartzeko eskatzen zaio erakunde errekurtsogileari— eduki badituela behar diren ezaugarriak, eta, beraz, izapide-egintza kualifikatuaren kategorian sartu behar dela —modu autonomo eta independentean aurkaratu daiteke—, AAJLren 25.1 artikuluan xedatzen diren eskakizunak betetzen ditu eta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/88a7e0fdf50f64d5a0a8778d75e36f0d/20240216>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 416/2024) Auzitegi Gorenaren 141/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak baieztatzen du eskubidea deklaratzeko egintzak kaltegarritzat jotzea gizarte-jurisdikzioaren aurrean aurkaratu behar dela, azkenean gizarte-jurisdikzioak lan-harremantzat jotako zerbitzu-harreman batean jasotako soldataren zenbatekoari eragiten badiote egintza horiek, eta ez dagoela gainerako egintzak zertan aztertu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/85d4f141b6f552faa0a8778d75e36f0d/20240209>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 354/2024) Auzitegi Gorenaren 162/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 1koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ondorioztatu du 408/2022 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita 20/2021 Legearen bidez Estatuko Administrazio Orokorrean aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza, legearen aurkakoa dela ez-egiteagatik, ez baita desgaitasuna duten pertsonentzako ezein erreserbarik egiten toki-administrazioarako idazkari eta kontu-hartzaileentzako 573 lanpostuetan. Lanpostu horiek lehiaketa bidez hautatzeko dira. <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c99cf410ffb5e357a0a8778d75e36f0d/20240209>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 588/2024) Auzitegi Gorenaren 188/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak kasazio-doktrina hau finkatu du: Auzi-jarduketetarako, udal-zerbitzu juridiko bateko kide diren letraduek abokatutzaren jardun-arauen arabera dihardute, eta, funtzionarioak diren aldetik, hierarkia-printzipioaren eta zerbitzu ematen duten udalaren mende. Hala, euren funtzioak enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuan xedatzen diren jarduteko printzipioen, printzipio etikoen, portaera-printzipioen eta betebeharren arabera gauzatu behar dituzte, eta kasuan kasuko administrazioak finkatzen dituen lanbide-jardunerako irizpideei jarraikiz.

2. Ondorioz, defendatzen duten udalak zerbitzu juridiko horien jarduna antolatzeko jarraibideak edo zerbitzu-aginduak eman ditzake, AAJren 54.2 artikulua ematen dien ahalmena baliatzeko. Antolamendu hori ez da prozesu-izaerakoa, baizik eta antolaketa- edo barne-araubidekoa. <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a2640b70fbf4d37ea0a8778d75e36f0d/20240216>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 892/2024) Auzitegi Gorenaren 236/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak ondorioztatzen du, inguruabar ezohiko batzuetan, administrazio batek ez dauzkanean agindu zaizkion eskumenak baliatzeko behar diren bitarteko material edo tekniko egokiak, ezin daitekeela baztertu, efikazia-arrazoia tarteko, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzera jotzea, bai kudeaketa-mandatuaren figura erabilita, bai administrazioaren baliabide propioetat jotako beste pertsona juridiko baten zerbitzuak baliatuta. Are gehiago, baliabide propio baten izateko arrazoa da administrazio publiko batek unerren batean izan ditzakeen gabeziak bere langileen eta bitarteko teknikoaren bidez indartzea, objektu sozialari dagokion jarduera-sektorean prestazioak gauzatzeko azpiegitura nahikoa eta egokia duelako, aukera efizienteagoa delako



kontratazio publikoa baino, edo, presako arrazoiak tarteko, beharrezkoa bada baliabide propioak edo zerbitzu teknikoak zerbitzu horiek ematea (40/2015 Legearen 86.2 artikulua).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5c568ce22546bc10a0a8778d75e36f0d/20240301>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1117/2024) Auzitegi Gorenaren 279/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak adierazten du diskriminatzailea dela Galiziako justizia-administrazioaren zerbitzura diharduten bitarteko langileei erregimen desberdina aplikatzea ibilbide profesionalaren arloan, alegia, karrerako funtzionarioei aplikatzen zaiena ez bezalakoa, Galiziako Xuntaren administrazioaren zerbitzura diharduten bitarteko langileekin gertatzen dena kontuan hartu gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9ef8c6a83e7c9a16a0a8778d75e36f0d/20240311>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1022/2024) Auzitegi Gorenaren 282/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren epai honek (administrazio publikoen ondarezko erantzukizunari buruzkoa) adierazten du ezen, kalte eta galeren erreklamazioa egiteko urtebeteko preskripzio-epaia zenbatzen hastearen ondorioetarako, epai irmo bidez deusez deklaratu den administrazio-jarduketara baten kasuan, epai horretan deklaraturako deuseztasuna dela eta beste administrazio-egintza bat —edo erregelamendu-xedapen bat— gauzatu behar bada eta kaltea epaian deklaratutakoa betetzean izandako berandutzeari egozten bazaio, preskripzioaren zenbatekoa ez dela hasiko, harik eta zigortutako administrazioak epai deusezlea erabat bete, eta deusez deklaraturako eskubidea erabat berrezartzen duen arte.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/25315a6994d0a9b9a0a8778d75e36f0d/20240308>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1279/2024) Auzitegi Gorenaren 317/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: Profesionalen Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 5. artikulua, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 7.3 artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 19.1 artikuluan xedatutakoekin lotuta, eta epaitegietarako sarbidea izatearen



eskubidearen argitan —zuzenbideko estatuen funtsezko bermeetako bat da, eta Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Itunaren 6.1 artikuluan babestuta dago—, honela interpretatu behar da: profesionalen elkargoek *ad procesum* legitimazioa dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean egintzak abiarazteko, SPKLren aplikazioaren mende dauden lizitazioen deialdietako ebazpenak deuseztatzea dutenean helburu lanbide-zerbitzuen prestazioen lizitazioetan, baldin eta administrazioaren jarduketek elkargokideen lanbide-interesei erasaten badiete, prozesu-ekintzak zuzenean eragiten badu lanbide-sektorean bertan, edo onura badakarkio sektore horri berari, interes kolektiboen edo orokorren babeserako —etikaren, gardentasunaren eta lanbide-jarduneko erantzukizunaren babeserako— abiarazi direlako, eta lanbide-jardun zuzenak kalte edo galera ziur eta benetakoa ez izatea helburu badute.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/99de5c33159a24b6a0a8778d75e36f0d/20240318>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1017/2024) Auzitegi Gorenaren 319/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak ondorioztatzen duenaren arabera, benetako babes judizialerako eskubidetik eta jurisdikzioaren eskusibotasun-printzipiotik eratorritako eskakizunek ez dute zehazten erabaki judizial bat betetzeko ezintasunetik —erabaki horren oinarrian dagoen legea aldatu delako— eratorritako balizko kalte-ordainak bideratzeko era egokia dela AAJLren 105.2 artikuluan xedatutakoa, estatu legegilearen erantzukizuna izan beharrean, zeinari printzipio horiek arrotz baitzaizkio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5290b11838395578a0a8778d75e36f0d/20240307>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 941/2024) Auzitegi Gorenaren 339/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak jurisprudentzia-doktrina hau finkatu du: Tokiko Ogasunak arautzeko Legearen 107.1, 107.2.a) eta 110.4 artikulua konstituzio-kontrako eta deusez deklaratu ditu Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 11ko 59/2017 Epaia bidez; beraz, konstituzio-kontrako arau horien deuseztasunaren ondorioak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio irmoei aplikatzen zaizkie; izan ere, konstituzio-kontrako arau horiek aplikatu izan balira, gaitasun ekonomikoaren adierazpen fikziozkoa eragingo zuketean, eta lursailen balio-gehikuntzarik izan ez zuten higiezinaren eskualdatzeak zergapetuko ziratekeen, gaitasuna ekonomikoaren printzipioa urratuta eta konfiskagarritasuna debekatuta, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua horiek aldarrikatu arren. Likidazio irmo horiek ofizioz berrikusi ahal izango dira Tributuen Lege



Orokorren 217. artikuluan xedatutako prozedurari jarraikiz, 1. apartatuko g) letra aplikatzea baitagokie, Espainiako Konstituzioaren 161.1.a) eta 164.1 artikuluetan eta Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 39.1 eta 40.1 artikuluetan xedatutakoarekin lotuta eta betiere Espainiako Konstituzioaren 164.1 artikuluan eta Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 40.1 artikuluan ezarritako mugekin. Horien arabera, ezin daitezke berrikusi epai bidez azkendutako prozesuak —gauza epaituaren indarrez—, konstituzio-kontrako deklaratu diren arauak aplikatu badira horietan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/925f4ac7054b033ea0a8778d75e36f0d/20240307>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1019/2024) Auzitegi Gorenaren 321/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzialdiko salak, erabat deusez iritzi arren erregelamendu-xedapenari (aurkaratutako epaian aipatzen den hobekuntza-plana) eraikuntza berrietan aplikagarri zen hirigintza-antolamendua urratzeagatik, ez du berariaz adierazi deuseztasuna, horixe erabakitzeko eskumena izanagatik, AAJLren 10.1.b) artikuluari jarraikiz. Aitzitik, aipatutako xedapena ez aplikatzea hautatu du.

Agerikoa da hautu hori ez datorrela bat sala honek 1265/2022 KAEn ezarritako doktrinarekin; izan ere, doktrina horren arabera, auzialdiko salak tesi hori proposatu behar zien alderdiei, eta, hala bazegokion, aipatu den xedapenaren deuseztasuna deklaratu behar zuen, erabaki hori hartzeko eskumena zuen eta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1c8bea52560092d6a0a8778d75e36f0d/20240307>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1215/2024) Auzitegi Gorenaren 366/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak hauxe ondorioztatzen du: horiek horrela, onarpen-autoan planteatutako kasazio-intereseko auziari, Laneko Ikuskatzaileordeen Kidegoko enpleguko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileordeen eskalari dagokionez, erantzun hauxe dagokio: uztaillaren 21eko 23/2015 Legearen 14.2.b) eta c) artikuluan esleitutako funtzio-gehikuntzak garrantzia du lanpostuen balorazio eta sailkapen berriak egitearen ondorioetarako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/53f54cd01f51767fa0a8778d75e36f0d/20240314>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1401/2024) Auzitegi Gorenaren 1401/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Gai honek zuen kasazio-interesa: zenduarekin familia-lotura edo izatezko lotura zuten pertsonak eta haren oinordekoek legitimaziorik dutenez

tratamenduaren erantzuleari edo arduradunari eskatzeko zenduaren datu pertsonalak ezaba ditzala, eta horrek ukitutako interesen —ahantzurarako eskubidea eta informaziorako eskubidea— haztapena aldatzen ote duen, Espainiako Konstituzioaren 18. eta 24. artikuluen, konstituzio-doktrinaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren argitan.

Gure ordenamenduak barne hartzen du zendu den pertsona baten datuak ezabatzeko eskubidea (ahantzurarako eskubidea). Alabaina, ezabatzeko eskubidea zendu den pertsona baten datu pertsonaletan baliatzea kasu berezia izanagatik, ezin daiteke bazter utzi zenduaren datuen babesa gatazkan diren beste eskubide eta askatasun batzuekin haztatzea, gure arauen eta egungo jurisprudentziaren argitan.

Zendu den pertsona bati buruzko informazioa partzialki zehaztugabea dela alegatuta —ikerketa historiko eta zientifiko batean ageri da informazio hori—, informazio hori zehatza izatearen eskakizuna ahultzen da, eta, orobat, zehaztugabetasunak informazio horretan guztian zenbateko garrantzia duen haztatu behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a0b4d9de54c94e4ca0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1187/2024) Auzitegi Gorenaren 377/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: «1. 7.1 artikuluko horretatik, 6.6 artikuluekin lotuta, biak ere destinoen erregelamendukoak, ondorioztatzen da ezin dakiokela destino bat derrigorrean esleitu deialditik aparte egon denari, bere borondatez edo onespenez parte hartu ez duelako, edo, parte hartu ez arren eta destino-premian egonik, onspena galdatu ez zaionari. 2. Destino baten deialdia izendapen aske bidez eginik, eskatzailerik ez bada agertzen, destinoa onespenez bete daiteke, baldin eta destinoa derrigorrean hartu behar duenak esleitu zaion destinorako behar diren baldintza pertsonalak eta lanbide- zein egokitasun-baldintzak betetzen baditu. 3. Ez dira gauza bera onspen bidezko esleipena —derrigorrezko destino omen dena— eta Destinoen Erregelamenduaren 13. artikuluan aipatzen den zerbitzu-premien ondoriozko esleipen derrigorrezkoa».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1081c186c7b3a9efa0a8778d75e36f0d/20240314>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1181/2024) Auzitegi Gorenaren 371/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau berretsi du: Dirulaguntzen Lege Orokorraren 22.2.b), 28. eta 34. artikulua eta Aurrekontuen Lege Orokorraren 21., 24. eta 73.4 artikulua, Kode Zibilaren 1100. eta 1108. artikuluekin lotuta, dirulaguntza batengatik ordaindu beharreko zenbatekoaren lege-zehaztapena egiteko garaian, honela interpretatu behar dira: dirulaguntzaren aldeko berandutze-interesak ordaintzeko exijentzia sortzen da beharraren lege-aitortza gertatzen den unean bertan, non eta ez den lehenago baliatu Administrazioaren jarduerarik ezaren aurkako ekintza bat, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko Legearen 29. artikuluan xedatzen denaren babesean, eta Administrazioak legez ezarritako dirulaguntza-betebeharra egintza betearazleen bidez hedatzen ez badu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a8c76ae4a4d54fd5a0a8778d75e36f0d/20240314>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1256/2024) Auzitegi Gorenaren 412/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Epaiaren arabera, administrazio-kontratu baten preskripzio teknikoen agiriak langileentzako eskubide eta betebeharren iturri izan ez daitezkeelako premisan oinarrituta, ezin ondorioztatu daiteke ordu kopurua hitzarmen kolektiboan ezarritakoa baino txikiagoa bada kopuru hura exijitu daitekeela. Auzitegi Gorenak dioen lez, ordu kopuru horrek «indar loteslea du administrazio-kontratuaren beraren alderdientzat; alegia, Ferrovialentzat eta administrazio autonomikoarentzat. Preskripzio teknikoen agiriak errekurtsuan adierazitako helmena badu (lanaldiaren murrizketa) eta bete ez dela egiaztatzen bada, ondorioak erreklamatu ahalko dituzte hizpide den administrazio-kontratuaren izenpetu duten alderdiek. Aldeak alde, antzeko zerbait gertatzen da hitzarmen kolektibo batek enpresa ukituak behartzen dituenean (esaterako, ostalaritzakoak) eskubideak parekatzeko klausulak hitzartzera erreferentziazko sektore-hitzarmenetik kanpo dauden enpresa lagungarriekin (esaterako, garbiketakoekin). Langileek, hitzarmenaren aplikazio-esparrutik kanpo egonik, ez dute hitzarmenaren aplikazioa eskatzeko ekinbiderik; aitzitik, enpresa nagusia da urraketa egilearen aurkako neurriak hartu ditzakeena. Horren adibide da martxoaren 12ko 250/2020 AGE (209/2018 erre)».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f005c9690680116ba0a8778d75e36f0d/20240315>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1184/2024) Auzitegi Gorenaren 394/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Jurisprudentzia eratzeko kasazio-interes objektiboko auzia hau da: «Funtzio publikoan sartzeko administrazio-prozedura batean Administrazioak ofiziozko berrikuspena erabaki badu, oposizio faseko ariketa bakarra kalifikatzeko oinarri jakin bat aplikatu delako, eta oinarri hori baliogabetu badu, eta, izangaien balorazioa berriro egiteko, jarduketen atzeraeragina ebatzi, ukitutako izangaiek aurkez lezaketen sartzeko prozesuaren amaierako ebazpen berria ofizioz berrikusteko eskaeran, 39/2015 Legearen 110. artikulua ondoietarako, amaierako onartuen zerrenda zaharra kontuan hartu beharko da, edo, bestela, plaza lortu duten onartuen amaierako zerrenda berraztertu berria kontuan hartu beharko da».

Salak hauxe ondorioztatzen du: funtzio publikoan sartzeko administrazio-prozedura batean Administrazioak ofiziozko berrikuspena erabaki badu, deialdiko oinarri jakin baliogabetu badu eta, izangaien balorazioa berriro egiteko, jarduketen atzeraeragina ebatzi, sartzeko prozesuaren amaierako ebazpen berria ofizioz berrikusteko eskaera beti egongo da 39/2015 Legearen 110. artikuluan ezarritako mugen mende —kasu honetan, igaro den denboragatik eta errekurtsogilearen pasibotasunagatik aplikatu behar dira—.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f281f3d94989d172a0a8778d75e36f0d/20240314>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1189/2024) Auzitegi Gorenaren 391/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak, onarpen-autoan adierazitako kasazio-auziari erantzunez, hauxe ondorioztatzen du: Administrazioak egintza bat nahitaez betearazi behar duenean, eta egintza horrek diru-kopuru bat ordaintzeko betebeharra dakarrenean, eta betearazpen-prozedura subrogaziozko betebeharpeko baten aurkakoa denean, borondatezko betearazpena egiteko eskatu, eta derrigorrezko betearazpena abiarazteko egintza jakinaraziko dio, betearazpen-izapideekin premiamenduzko prozeduraren arauen bidez jarraitzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/36ce7b771d54dcb4a0a8778d75e36f0d/20240314>



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1284/2024) Auzitegi Gorenaren 400/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kasazio-interes objektiboko gaiari emandako erantzuna: aldizkako langile finkoek Administrazioan aurretiaz emandako zerbitzuak zenbatzeko, kontuan hartu behar da lan-harremanaren iraunaldi osoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8d89ed57cbffc80a0a8778d75e36f0d/20240318>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1416/2024) Auzitegi Gorenaren 393/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak finkatu duenaren arabera, enplegu-zerbitzuak, bitartekaritza-zereginetan, administrazio publikoen eskaintza jakin batean berdinketa urratzeko irizpide gisa balia dezake eskabideak aurkeztu diren hurrenkera, betiere horretara behartzen duen berdinketa berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin bat datozen irizpideak aplikatu izanaren ondorio bada.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d21ffff2f6de471ea0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1432/2024) Auzitegi Gorenaren 407/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak doktrina berretsi, eta hauxe adierazten du: «Aztertu den tasa —Madrileko Udalak eskatzen du zerbitzu publiko jakin batzuk emateagatik; alegia, udal-galerien zaintza, kontserbazioa edo konponketa, galeria horien erabiltzaileei eragiten dizkietenak— bateragarria da lurzoruan, zorupean edo lurgainean interes orokorreko hornidura-zerbitzuak edo auzotar guztiei edo askori eragiten dieten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde eratutako erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia kargatzen duen tasarekin [...]».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/da9ba129d3ae4685a0a8778d75e36f0d/20240322>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1428/2024) Auzitegi Gorenaren 419/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Epaia berresten du 182/2021 KAEn ondorioetarako finkatutako egoerei buruzko doktrina. Kasu honetan, ondorioztatzen du ezin esan daitekeela finkatutako egoera denik, arrazoi honengatik: «Errekurtso hau onartzea justifikatu zuen kasazio-interesari gagozkiola, kontuan hartu behar dena berraztertze errekurtsoa 2021eko ekainaren 24an aurkeztu zela, hau da, 182/2021 KAEa baino lehenago; beraz, likidazioa administrazio-bidean zen aztergai jada, eta, ondorioz, Konstituzio Auzitegiak epai hori eman zuen egunean ez zen irmoa.

Kontuan hartu behar da isiltasun negatiboarena fikzio legal hutsa dela; aurkaratzeko aukerari bide ematen dio, baina bere horretan irauten du Administrazioak berariaz ebazteko betebeharra (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.-25. artikulua; urriaren 2ko BOE, 236. zk.) —Santanderreko Udalaren arabera, horixe egin zuen 2020ko azaroaren 2ko Ebazpenean, jurisdikzio-errekurtsoa aurkeztu ondoren—. Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren doktrinatik ondorioztatzen denaren arabera (2014ko apirilaren 10eko 52/2014 epaia, ECLI:ES:TC:2014:52), isiltasun bidezko ezespenei jurisdikzio-aurkaratzeak ez du zertan bete AAJren 46.1 artikuluan xedatzen den iraingipen-epea».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c6fa253b5ffd56d0a0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1435/2024) Auzitegi Gorenaren 426/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Epai hori hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio behin-behineko edo behin betikoak aurkaratzeko aukerari buruzko beste irizpide bat da, 182/2021 KAEk likidazio horiei konstituzio-kontrako iritzi ondotik. Aurretiazko doktrina berresten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/69b793b0efc0a30ba0a8778d75e36f0d/20240322>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1370/2024) Auzitegi Gorenaren 432/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kasu honetan frogatu ez bada ere, Salak hauxe gogorarazten du: kontuan har bedi funtzionario-harremana, estatutu-izaerakoa izaki, eta ez konbentzionala, soldata-egituran zertzen dela, bai eta lanpostu-zerrendetako zehaztapenean ere, osagarriei dagokienez, tartean, lanpostuari, edo zailtasun tekniko bereziari, erantzukizunari, arduraldiari eta bateraezintasunari lotuak. Batera edo bestera, ordainsari osagarriak dira, ezin daitezkeenak unean uneko jardun batetik eratorri. Kontu oso bestelakoa da goragoko maila bateko funtzio propioen esleipen egonkor eta mugagabea, maila horri dagokion aitortza baitakar. Alabaina, goragoko azpitalde baten funtzio propioak egitea balitz auzia, irregulartasuna are astunagoa izango litzateke, soldatari berari eragingo liokeelako, eta soldata sailkapeneko azpitaldeari lotuta dago.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e5874221199b374ba0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1414/2024) Auzitegi Gorenaren 442/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak aitortzen du partikularrek eskubidea dutela Multzo Historiko deklaraturako eremu bateko babes bereziko plan baten aldaketa puntuala sustatzeko; hori bai, udal-administrazioari dagokio aldaketa horren hasierako onarpena eta behin betikoa erabakitzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dc0377ba2f180128a0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1418/2024) Auzitegi Gorenaren 448/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak berriro berresten du erretiro aurreratuagatiko primei buruzko jurisprudentzia-doktrina: horiek horrela, kasu honetan, Vilanova i la Geltrúko Udaleko Funtzionarioen Lan Baldintzak arautzeko Akordioan ezarritako erretiro aurreratuagatiko pizgarri bat dugu aztergai. Pizgarri horrek ordainsari-izaera du, ezein lege-xedapenen estaldura beharrezkorik gabe. Horrela bada, gure jurisprudentziari jarraikiz, ondorioztatu behar dugu auzitegiaren epaia ez dela Zuzenbidearen araberakoa, bai, ordea, Salvador jaunak aipatu pizgarria ordain zekion egin zuen eskaera ezesteko udal-erabakia.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a3dd419ffcb26a0a8778d75e36f0d/20240322>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1417/2024) Auzitegi Gorenaren 454/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe ondorioztatzen du: APELen 39.1 artikuluan aipatzen den presuntzioa kontuan hartuta, administrazio-egintza baten legezkotasuna kontrolatu behar duen jurisdikzio-organoak presuntzio hori frogatze bidez indarrik gabe geratu dela erabakitzen ez duen artean, administrazio-egintzak baliozkoa izaten jarraituko du, eta ondorioak izaten ere bai.

Hala, epaitzen ari garen kasuan, 2017ko plana baliogabetzeak 1997ko arau subsidiarioak indarberritzea dakar. Horrenbestez, 2017ko plana baliogabetzeak ez dakar berez, besterik gabe, haren babesean eman zen beilatokia eraikitze lizentziaren deuseztasuna. Lizentzia horrek baliozkotasun- eta zuzentasun-presuntzioa izaten jarraitzen du, harik eta jurisdikzio-organoak, dagokion frogaren bidez, presuntzio hori benetan indargabetu dela egiaztatzen duen arte. Horretarako, beharrezkoa izango da lizentziaren deuseztasun-deklarazioa lortu nahi duenak alegatu eta frogatzea 2017ko planaren babesean emandako eraikuntza-lizentzia —jada ez du plan horren babesa, deusez deklaratu delako— ez datorrela bat 1997ko arau subsidiarioetan ezarritako zehaztapenekin.

Araubide juridiko hori «indarberritu» egin da 2017ko planaren deuseztasuna deklaratzearen ondorioz (Pascual jaunak ez du halakorik egin).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e3a875662dfab3d5a0a8778d75e36f0d/20240322>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1576/2024) Auzitegi Gorenaren 466/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak, errekurtsu honetan adierazi den kasazio-auziari erantzunez, honakoa adierazi du: administrazio-prozeduren iraungipena bazter uzteko aukera, interes orokorragatik edo komeni delako, indarrean da bai interesdunak abiarazi badu, bai Administrazioak abiarazi badu, eta baztertze hori aplikatu ahalko zaie erabat deusezak diren xedapenen eta egintzen ofizioko berrikuspenei.

Horretarako, argudio juridiko hau erabiltzen du: iraungipenaren ondorio orokorretatik partikularrek eskatuta —eta, ondorioz, euren onerako— abiarazitako prozedurak bakarrik bazter utziko balira, nekez imajinatu liteke zer «interes orokor» dagoen prozeduraren jarraipenean, partikular baten eskubidea bada eztabaidagaia. Egokiago da pentsatzea interes orokor hori Administrazioak berak abiarazitako prozedurei datxekiela. Arrazoiketa muturrera eramanda ere, bazter uztea partikularrek eskatuta abiarazitako prozeduren iraungipenaren ondorioetara mugatuz gero, gogora ekarri behar da halako egoeren sorburua dela interesdunak ez ematea prozedura jarraitzeko beharrezkoa den laguntza. Beraz, jarraitzeari uko egiten badio,



aurreikus liteke jarrera horri eutsiko diola, are prozedura amaitzea bazter utzita ere, eta hori da laugarren paragrafoan xedatuaren bidez etenda uzten den ondorioa. Hots, zentzurik ez luke izango ofiziozko berrikuspen-prozedura interesdunek abiarazitakoan salbuespenak eragina izatea, interes partikularra baizen ez legokeelako, zeina salbuespenarekin bateraezina baita, eta, kontrara, salbuespenak indarrrik ez izatea deuseztasun-deklarazioa Administrazioak berak eskatutakoan, nahiz eta interes orokorra duela auresuposatu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/167c3c2ce66f4e6fa0a8778d75e36f0d/20240402>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1574/2024) Auzitegi Gorenaren 483/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salaren arabera, jarraibideak epai irmo bidez deusez deklaraturako xedapen izateak eta jarraibide horiek lanpostu-zerrenda egiteko kontuan hartu izanak ez dute nahitaez eragiten lanpostu-zerrenda jarraibide horiek aplikatzeko egintza izatea, AAJLren 73. artikulua arabera. Funtsezko arrazoia da, errekurtsoa jarri zaion administrazioak nabarmendu bezala, errekurtsogileak ez duela inola ere azaldu jarraibideek zer-nola eragin zuten Baso-ingeniaritzako gradudunak, Baso-ingeniaritzako eta Ingurumenekoak eta Basogintzako ingeniari teknikoak lanpostu jakin batzuetatik kanpo uztea lanpostu-zerrendan.

Halaber, errekurtsogileak ez du justifikatu jarraibide horiek egotea —zalantzarik gabe, lanpostu-zerrenda prestatu eta egiteko barne-prozesua bideratzeko onartu ziren— lanpostu-zerrenda onartzeko lege-betekizun saihetsezina denik. Hala ez balitz, lanpostu-zerrenda jarraibide horiek aplikatzeko edo betetzeko egintza delako iritzia eztabaidagarria litzateke.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b17f1035528da5a0a0a8778d75e36f0d/20240402>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1573/2024) Auzitegi Gorenaren 486/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau gogorarazi du:

1. Aurrekontuen legeek funtzionario publikoen ordainsarien bolumen globalaren igoerari gehieneko mugak jartzearen oinarriak dira Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikuluan jasotako eskumen-titulua eta 156.1 artikuluan autonomia-erkidegoen autonomia-muga gisa jarduten duen koordinazio-printzipioa.

2. Muga horiek finkatzea neurri ekonomiko orokor bat da, aurrekontu-izaerakoa, gastu publikoaren hedapenari eustea duena xede.

Gastu publikoa antolatzeko ahalmenean ez dago hitzartutako akordioen izaera lotesletik eratorritako lege-mugarik, ezpada gastu publikoaren hazkunde oro Aurrekontuen Legearen mendean egon beharra; izan ere, Espainiako gobernuak, Espainiako Konstituzioaren 134.1 artikuluari jarraikiz eta 66.2 artikuluan babesa duen ahalmen legegile orokorretik eratorritako funtzio edo eskumen espezifiko bat gauzatzuta, osatzen dituen Estatuko Aurrekontu Orokorrak Espainiako parlamentuan onartuaz bat, aurrekontuak onartzeko legearen artikuluek eta horien edukiek lege-indarra eskuratzen dute, eta lege horri egin behar dio men akordio horiei darien negoziazio-borondateak.

Horra 2023ko urriaren 2ko onarpen-autoan formulatutako kasazio-intereseko auziaren erantzuna: Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean jasotakoak baino ordainsari-igoera handiagoak dakartzkiten akordio, hitzarmen edo itunei dagokien doikuntza egin beharko zaiela ezartzen duten xedapenak zuzenean aplikatzekoak dira eta lege-xedapen horien aurkakoak diren klausulak ez aplikatzea eragiten dute, baita klausula horiei, kasuan kasuko urteko kuotetan, dagokien doikuntza egiteko betebeharra ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/25ab77ed1a72027ba0a8778d75e36f0d/20240402>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1572/2024) Auzitegi Gorenaren 494/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Hauxe da kasazio-interesa duen auzia: funtzio publikoan sartzeko hautespen-prozesu batean, zer gutxienerako nota erabili behar den epai baten betearazpena dela-eta antolatutako proba psikotekniko bat egiteko, berdintasunerako eskubidea errespetatzen dela ulertuko bada.

Salak adierazten du, hizpide den kasuan, ez dela Zuzenbidearen arabera errekurtsogilea bidegabe kanporatuta geratu zen hautespen-prozesuan finkatutako gutxienerako nota erabiltzea. Abian den sustapenean egin beharreko proba psikoteknikoak jatorrizko sustapenekoaren zailtasun eta ezaugarri, erantzun-denbora eta ariketa mota berdinak edo antzekoak izan behar dituen neurrian, konponbide egokia hau da: izangai guztiei, epaiaren indarrez parte hartu, lehen aldiz parte hartu, aipatu proba eratortzen den deialdian finkatutako gutxienerako nota aplikatzea. <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d324a28f06ef6ceaa0a8778d75e36f0d/20240402>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1635/2024) Auzitegi Gorenaren 516/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe adierazten du: ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboa da zergaren zerga-egitatea datzan eskubidearen titularraren.

Katastroko titularraren eta dagokion eskubidearen titularraren artean desadostasunik badago, Jabetza Erregistroaren arabera, erregistro horretan jasotzen den katastroko erreferentzia jasotzen dutenei dagozkien finken gainean, kontuan hartuko da, Katastroaren ondorioetarako, bertatik ondorioztatzen den titulartasuna, salbu eta Katastrora sartzeko baliatzen den dokumentuaren data Jabetza Erregistroan inskribatutako tituluaren ondokoa bada.

Katastroaren eta kasuan kasuko udalaren edo toki-erakundearen artean funtzioak eskualdatzeko hitzarmenik badago, desadostasun hori egiaztatzeak subjektu pasiboa ez den katastroko-titularrari egin zaion OHZaren likidazioaren deuseztasuna ekarriko du, udalak edo toki-erakundeak dagozkion zuzenketak egin ondoren, subjektu pasiboa zehaztearen ondorioetarako.

Funtzioak eskualdatzeko hitzarmenik ez badago, udalak edo toki-erakundeak egindako likidazioa behin-behinekoa izango da, eta indarrak gabe geratuko da Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak katastroko-titulua aldatzea erabakiaz bat. Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak katastroko-titulua berresten badu, udalak edo toki-erakundeak, hala badagokio, behin betiko likidazioa egingo du. <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fd2cf4430c169187a0a8778d75e36f0d/20240405>



Auzitegi Nazionala

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 716/2024) Auzitegi Nazionalaren Epaia, 2024ko otsailaren 9koa.

Salak nahitaezko jakinarazpen elektronikoei buruzko doktrina gogorarazten du (pertsone juridikoen kasua); alegia, lege-betekizun guztiak betez egin bada jakinarazpen elektronikoa bat, eta ezein elementutik ezin badaiteke ondorioztatuta jakinarazpena hartzaileari egotz ezin dakioken ezein kausagatik ez dela harengana iritsi, Administrazioak ez du zertan ahalegin gehigarri egin.

Hala ere, arauan ezarritako betekizunak formalki beteta ere, zenbaitetan, tartean diren inguruabarrak eta arauaren helburua kontuan hartuta, gerta daiteke jakinarazpen elektronikoa ez izatea aski. Horrelakoetan, Administrazioak ahalegin gehigarri bat egin beharko du, jakinarazpena benetan jasotzen dela ziurtatzeko. Zergapekoak alegatu eta frogatu beharko ditu inguruabar horiek, salbu eta espedientetik ondorioztatzeko modua bada.

Beraz, betekizunak «formalki» bete diren arren, ebatzi dugu jakinarazpen elektronikoa ez dela baliozkoa sisteman akatsen bat dagoenean, sisteman nahitaez sartu beharreko jakinarazpenak akatsen bat izan badu, jakinarazpenaren eraginkortasunaz zalantzak badaude, edo Administrazioak berak gauzatutako egintzetatik administraziopekoak ondoriozta badezake jakinarazpena modu jakin batean egingo dela.

Doktrina hori hizpide den kasuari aplikatuta, Salaren iritzian, kasu zehatz honetan, tartean diren inguruabarrak kontuan hartuta, Administrazioak ahalegin gehigarria egin behar zuen jakinarazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f38b9413b39dff22a0a8778d75e36f0d/20240305>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1212/2024) Auzitegi Nazionalaren 1868/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak beka-eskatzaile baten kasua aztertu du. Deialdiaren oinarrien arabera, derrigorrezkoa zen eskabidea elektronikoki aurkeztea. Ikaslearen beka-eskaera zirriborro-egoeran geratu zen; beraz, ez dago jasota ezarritako prozedura telematikoaren bidez egoki aurkeztu zuenik.

Bada, Salak hau ere ondorioztatzen du: pertsona horiek nahitaez erabili behar dituzte bitarteko elektronikoa administrazio publikoekiko harremanetan, administrazio-prozedura bateko



edozein izapide egiteko. Eskaera modu presentzian aurkeztuz gero, administrazio publikoek interesdunari adierazi behar diote bide zuzena erabiltzeko; hau da, elektronikoki aurkezteko. Ez da hori, ordea, errekurtsogilearen kasua, prozedura espezifikoak eskaera telematikoki aurkeztera behartzen baitzuen, eta ez zuen hala egin. Horrenbestez, errekurtsua ezetsi, eta errekurtsua jarritako ebazpena berretsi behar da; interesdunaren eskaerarik inon jasota ez dagoenez, ez da izapidetu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b16a8c2162bc100ea0a8778d75e36f0d/20240327>

Justizia-auzitegi nagusiak

- **(Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: Galiziako JAN 4396/2023 Epaia) Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 508/2023 Epaia, 2023ko ekainaren 14koa.**

Salak hauxe ondorioztatzen du: organo deitzailean emandako zerbitzuak nabarmen lehenestea onargarria den arren —zerbitzu-emaleei tratu berezia emanda—, onartezina da tratu berezi neurrigabea ematea. Baiki, neurritz kanpokoak da Galiziako Osasun Sistema Publikoan emandako zerbitzuei 0,20 puntu/hilabete ematea, eta Estatuko Osasun Sistemako erakundeetan emandakoei, berriz, 0,10 puntu/hilabete. Hala, lehenei % 100 puntu gehiago ematen zaizkie bigarrenei baino. Onargarria denaren mugak aise gainditzen ditu horrek, ezinezkoa gertatuko litzateke-eta hautespen-prozesua merezimendu-lehiaketaren bidez gainditzea, kontuan hartuta puntuaketa txikiago hori. Hala, izangai kaltetunak, izangai saridunen mailara iristeko eta 28 puntuko gehienekoa lortzeko, 23 urte eta 3 hilabetez jardun beharko zukeen zerbitzuak ematen, baina onuradunek 11 hilabete eta 6 hilabete besterik ez. Biziki deigarria da aldea, kontuan hartuta funtzio berberak gauzatzen dituztela. Nolanahi ere, ezin argudiatu daiteke tratu diskriminatzaile horren kausa enpleguaren behin-behinekotasunari buru ematea eta enpleguaren egonkortasuna lortzea dela; izan ere, deialdian ez da inon horretaz deus aipatzen (ez da aski enplegua egonkortzeko eskaintza baten aipamen orokor bat egitea), eta ezinbestekoa da huraxe zehatz aipatzea, enplegu publikorako sarbidean berdintasun-arau orokorraren ezohiko urraketa hori justifikatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6696eca2f832defea0a8778d75e36f0d/20230727>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Murtziako JAN 2113/2023 Epaia) Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2113/2023 Epaia, 2023ko azaroaren 9koa.

Auzitegiak aztertu du Administrazioari egotz dakioken titulurik denetz, eta, Administrazioak, errepidearen titularra izanik, istripua aurreikusi eta prebenitu ote zezakeen.

Salaren iritzian, kasuak barne hartzen ditu Administrazioaren ondarezko erantzukizuna deklaratzeko elementu guztiak; izan ere, datuek adierazten zuten beharrezkoa zela basafauna errepidean sartzeko arriskuaz ohartarazteko seinaleak jartzea.

Baiki, bereziki seinaleztatu behar zen egoera hori ezbeharrak gertatu zen lekuan, baina gertatu zen unean ez zegoen halakorik; ondorioz, administrazio publikoaren funtzionamendua anormala izan da, eta kalte-ordainak ordaintzea dagokio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/07ab29145b03e36aa0a8778d75e36f0d/20231124>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrileko JAN 854/2024 Epaia) Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 61/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 18koa.

Epaia adierazten du egonkortzearen xede den estaturako gaikuntza duen funtzionarioaren hasierako maila ez dagoela lanpostuko jardun behin-behineko edo behin betikoaren mende, baizik eta hautespen-prozesuaren ondoren eman zaion lanpostuaren mailaren mende. Hala, lanpostuan behin-behinean jardundako denbora, behin lanpostu hori edo maila bereko beste bat behin betiko eskuratu ondoren zenbatuko da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8d4ef8670afa559ea0a8778d75e36f0d/20240312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrileko JAN 337/2024 Epaia) Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 42/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 22koa.

Epaia gogorarazten du urriaren 1eko 39/2015 Legearen 116.d) artikulua; alegia, berraztertzeo administrazio-errekurtsoa jartzeko epea igaro izana errekurtsoa ez onartzeko legezko arrazoia da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/36a2974169c557dca0a8778d75e36f0d/20240305>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrileko JAN 933/2024 Epaia) Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 45/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 29koa.

Salak hauxe ondorioztatzen du: Idazkaritzaren titularrak bilkuretan egoteko betebeharra eta horien akta sinatzeko betebeharra martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan jasotako kasuetarako gordetzen da: osoko bilkurak, gobernu-batzarrak eta udalbatzaren edozein organok egindako bileren deialdiak jakinaraztea, udalbatza lotzen duten erabakiak hartzen badira bilerotan.

Negoiazio-mahaiak, ordea, ez dira aipatzen Idazkaritzaren funtzio publikoari buruzko a), d) eta f) letretan. Ez dira erabaki lotesleak hartzen dituzten kide anitzeko organoak, ezta erabakiak hartzen dituzten toki-administrazioaren kide anitzeko organoak ere. Toki-erakundeen kide anitzeko organoek askotariko funtzioak izan ditzakete; erabakiak hartzea, proposamenak egitea, aholku ematea edo kontrola egitea. Lehenengoak baizik ez ditu barne hartzen 128/2018 EDaren 3.2 artikuluan xedatutakoak, alegia, erabaki-funtzioak dituztenak edo administrazio publikoko kide anitzeko organoentzako indar loteslea dutenak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fba79b7d61aae19ea0a8778d75e36f0d/20240312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Kantabriako JAN 725/2023 Epaia) Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusiaren 725/2023 Epaia, 2023ko urtarrilaren 19koa.

TAOLren 77. artikulua araberak, zinegotzien informaziorako eskubidea espedienteen edukira mugatzen da; beraz, ezin ditzakete eskatu espediente horien txosten osagarriak, are gutxiago 5 egunetan egiteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8ce8446802ae1730a0a8778d75e36f0d/20230822>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Valentziako JAN 217/2024 Epaia) Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 60/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 1koa.

Salak gogorarazten du jakinarazpen batean egon litekeen formazko akats oro zuzendu egiten dela errekurtsogileak administrazio-egintzaren aurkako errekurtsua jarriaz bat; izan ere, ekintza horrekin berariaz aitortzen du jakinarazitako administrazio-ebazpenaren berri izan duela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f0bbe73245412b51a0a8778d75e36f0d/20240221>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrileko JAN 1011/2024 Epaia) Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 64/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 5koa.

Epaia gogorarazten du aurrekontuen behin betiko onarpena, eta, ondorioz, kreditua aldatzeko espedienteena, dagokien aurrekontu-ekitaldiaren barnean egin behar dela. Hala, aldaketa-espedita baten behin betiko onarpena hurrengo ekitaldian egin bada, behin kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldirako aurreikusitako obligazioak eta diru-sarrerak eginda, onarpena epe kanpoko eta deuseztasun-kausa da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/91b15077266a4720a0a8778d75e36f0d/20240312>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: ASE 10/2024 Epaia) Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 66/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 23koa.

Salak, EBJANren 2024ko otsailaren 22ko epaia aplikatuta, ezartzen du Telemadrیدهko langile bat finkoa dela, hainbat aldi baterako kontratu kateatu ondotik, 5 urte baino gehiago daramatzalako enpresa horrentzat lan egiten obra- eta zerbitzu-kontratu batekin.

Zehazki, hauxe baieztatzen du: EBJAk, Salak *ad quem* planteatutako arazo prejudizialei erantzunez eta Europako Sindikatuen Konfederazioaren, Europako Industriako Konfederazioen Batasunaren eta Europako Enpresa Publikoaren Zentroaren arteko esparru-akordioaren 2., 3. eta 5. klausulak interpretatuta, 1999/70/EE Zuzentaraua, adierazi du Espainiako Erresumak administrazio publikoetan aldi baterako kontratazioaren abusua zigortzeko hartu dituen neurriak, tartean, lan-kontratu «mugagabe ez-finkoa»ren figura sortzea, langile mugagabe ez-finkoa kaleratzeagatik urteko 20 eguneko kalte-ordaina ordainaraztea eta abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako egonkortze-neurriak, ez direla nahikoa eraginkorrek administrazio publikoek eta sektore publikoak, oro har, aldi baterako kontratazioan izandako abusuzko jokabidea zigortzeko.

Epai horrek, orobat, gogorarazten digu Europar Batasuneko ordenamendua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ordenamendu horren gainean egiten duen egiazko interpretazioa halabeharrez gailentzen zaizkiola Espainiako araudia, are konstituzio-mailakoa izanda ere, interpretatzen duen jurisprudenziari.



Beraz, Europar Batasuneko Zuzenbidea gailentzen zaionez Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluari, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren interpretazioari men eginda, gure irizpidea zuzendu behar dugu; izan ere, jardulea langile mugagabe ez-finko gisa aitortuta, demandatutako enplegatzaile publikoa ez genuen aski zigortu. Halaber, demandako uzi nagusia baietsi behar dugu, eta jarduleak langile RADIO TELEVISIÓN MADRID SAREN langile FINKOAREN izaera duela adierazi. Ondorioz, demandatua zigortzen dugu, eta aurreko irizpena onartu eta bete beharko du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/355f31452a47aab7a0a8778d75e36f0d/20240304>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Andaluziako JAN 1/2024 Epaia) Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 856/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 14koa.

Salak, auzialdian langilea mugagabe ez-finko gisa deklaratu ondoren, ulertzen du ez dagoela zertan langile finko deklaratu demanda jarri duen bitarteko langilea —kontratu mota hori zuen 2013az geroztik, Sevillako Udalean lanpostu huts bat betetzeko—. Langile horrek, lanpostu huts baterako bitarteko gisa kontratatu aurretik, plaza finkorako 3 hautespen-prozesutan parte hartu zuen, eta ez zituen gainditu.

Beraz, auzialdiko irizpideari eutsi, eta hauxe adierazten du: «Gure iritzian, Montero Mateos auziko 64. ataleko logikari eutsi behar zaio (EJBAren 2018ko ekainaren 5eko Epaia, C-677/16) ohi baino luzeagoa den kontratazio honetan, iraunaldi hori justifikatuta egon zein ez. Kasu horietan, mugagabe ez-finko deklaratzeko erantzun egokia da, baldintzapeko kontratua izanik. Hala, aipatu epeak igaro ondoren azkentzea bidegabetzat kalifikatuko litzateke eta, abusua zigortzeko, kaleratze bidegabegatik ezarriko litzatekeen kalte-ordainari tasatu gabeko kalte-ordain bat gehitu beharko litzaioke (Diego Porras 2 doktrinari kontra ez egiteko), enplegatzaileak abusuzko eran erabili dituelako kontratu mugagabe ez-finkoak, aipatu den EBJAN 2024/02/22ko epaiaren 106. eta 107. atalei jarraikiz. Ondorioz, Espainiako Konstituzioa (14. art.) esparru-akordioaren 5. klausularen argitara interpretatu behar da 1999/70 Zuzentaraua betetzen duela bermatzeko eta zuzentarau horren helburuaren arabera izan dadin ematen den konponbidea».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/23909026b2f66e41a0a8778d75e36f0d/20240325>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Gaztela-Mantxako JAN 395/2024 Epaia) Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 268/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 15ekoa.

Epaiak deskonexio digitalerako eskubidearen ustezko urraketa aztertzen du, eta hauxe dio: Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren 88. artikulua araberako, langileek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, legez edo hitzarmen bidez ezarritako lanaldiaz kanpo haien atsedendia, baimenak eta oporrak errespetatu daitezkeen, bai eta norberaren eta familiaren intimitatea errespetatu dadin ere.

Esan behar da errekursoak, xedapen horiek urratu direla alegatu arren, ez duela inolako erretortza zertan datzan enpresan onartu den protokoloa, eskubide hori baliatu ahal izateari buruzkoa, eta enplegatzaileak zer-nola urratu duen ere ez duela azaltzen.

Horrez gain, kasuan kasuko saila langilearekin baja medikoaren iraunaldian harremanetan jartzen ahalegindu izana —ikastaro zati batzuk egin zitzakeela adierazteko, baja medikotik itzultzean ikastaroa osorik egin behar ez izateko—, ez da lege-urraketa hainbestekoa, ezta langilearen bitzita pribatua sartzeko ere, ez behintzat langileak nahi duen moduko kontratu-suntsiarazpena eragiteko.

Azken batean, ezin daiteke egiaztatutzat eman Langileen Estatutuaren 50. artikuluan aipatzen den egoera, langileak gauzatutako azkentze-ekintzaren zilegitasuna lekarkeena; beraz, errekurtsua ezetsi egin behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a7046de0e357c53ca0a8778d75e36f0d/20240325>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Asturiasko JAN 315/2024 Epaia) Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 96/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 6koa.

Epaiak dirulaguntzen gaineko doktrina gogorarazten du; doktrina baketsuaren arabera, oinarri arautzaileak dira dirulaguntza baten araubide juridiko espezifikoak, eta oinarri horietan ezartzen da laguntzaren hartzaileek gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraitu behar dietela.

Auzitegi Gorenak, dirulaguntza bat ematea bidezkoa izan dadin, dirulaguntza hori erregulatzen arauak eta dirulaguntzaren oinarrietan ezarritako betekizunak zorrotz bete behar direla agindu du; batzuetan, oinarri horien interpretazio literala edo gramatikala egiten du, beste batzuetan, aldiz, oinarri horiek helburuaren arabera interpretatzen ditu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c33052a6905042c2a0a8778d75e36f0d/20240318>



- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Kataluniako JAN 1199/2024 Epaia) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 586/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 26koa.**

Epaiak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 136. artikulua gogorarazi ostean, ezartzen du ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-kudeaketaren barne-kontrol eta -ikuskapeneko funtzio publikoaren ardura —hiru funtzio ditu batean; kontu-hartzaitzako funtzioa, finantza-kontrolako funtzioa eta eraginkortasun-kontrolako funtzioa— administrazio-organo bati dagokiola, alegia, udal kontu-hartzaitza nagusiari, eta udal kontu-hartzaitza nagusiak dagozkion funtzioak autonomia erabatekoz gauzatuko dituela fiskalizatzen dituen gainerako udal organo eta entitateekiko eta zuzendaritza-kargudunekiko. Hala, sarbide erabatekoa izango du kontabilitaterako eta dagozkion funtzioak gauzatzeko behar dituen agiriatarako. Gainera, haren titular izendatuko dute gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioetako bat.

Hau ondorioztatzen du: beraz, ulertu behar da udal kontu-hartzaile batek prozedura judicial baterako egindako txostenak inpartzialak direla, berak diharduen udala alderdietako bat izanda ere, txosten horiek ez baitaude ezin udal-organoren mende (alkatea, osoko bilkura, tokiko gobernu-batzarra), eta hark erabateko autonomiaz gauzatzen dituela dagozkion funtzioak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cec78d542f056fdaa0a8778d75e36f0d/20240404>

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

Europako Eskualdeetako Lantaldea

- **Europako Desgaitasun Txartela eta desgaitasuna duten pertsonentzako Europako Aparkaleku Txartela. (159. osoko bilkura, 2024ko urtarrilak 31 - otsailak 1)**

Europako Eskualdeetako Lantaldeak begi onez hartu du Europako Batzordearen ekimena, alegia, Europako Desgaitasun Txartelerako eta desgaitasuna duten pertsonentzako Europako Aparkaleku Txartelerako eredu erkide normalizatu bat ezartzea, neurri eraginkorra baita desgaitasuna duten pertsonen ahalik eta independentzia handienaz mugitzeko askatasuna izan dezaten, eta herritarren eskura dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko garaian tratu- eta aukera-berdintasunerako eskubidea baliatzea errazago izan dezaten.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-04646-00-00-ac-tra-es.docx/content>



- Arriskuen kudeaketa eta merkatuaren arauketa: Europako nekazaritzaren iraunkortasuna indartzeko tresnak. (159. osoko bilkura, 2024ko urtarrilak 31 - otsailak 1)

Europako Eskualdeetako Lantaldeak nabarmendu du nekazaritza-politika erkideak eta ezbeharretan kalte-ordainak *a posteriori* ordaintzeak Europako nekazaritako produktoreentzako eta Batasuneko landa-eskualdeen erresilientziarako arrisku-faktoreak indargabetzen edo ahultzen lagundu dutela hogeita hamabost urteotan. Horrenbestez, azpimarratu du beharrezkoa dela laboreek eta aziendak pairatutako kalteak konpentsatzeko sistema egokiak edukitzea, eta sistema horiek kontuan hartu behar dutela inpaktu ekonomiko globala, ekoizpen-ahalmenaren gaineko albo-ondorioak barne.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-02288-00-00-ac-tra-es.docx/content>

- Europako Itun Berdea eta osasuna. (159. osoko bilkura, 2024ko urtarrilak 31 - otsailak 1)

Europako Eskualdeetako Lantaldeak adierazi du klima-aldaketak nabarmen handitzen dituela ekosistemen, giza osasunaren eta ekonomiaren gaineko kargak eta arriskuak, bai maila indibidualean, bai Europa mailan. Itun Berdea oinarri hartuta, erronkei aurre egin behar zaie eta abagunean aprobetxatu behar dira, trantsizio ekologikoaren helburua betetzeko; alegia, Europa klimatikoki neutroa izatea.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-03364-00-00-ac-tra-es.docx/content>

- EBren ikuspegi politiko bateratu baterantz, tokiko berrikuntzari laguntzeko, trantsizio ekologiko eta digitalaren mesedetan

Europako Eskualdeetako Lantaldeak nabarmendu du beharrezkoa dela elkarrizketa egituratua egotea Europako Batzordearen zerbitzuen eta eskualdeetako berrikuntza-ekosistemetak eragileen artean, finantzaketa-politikak eta -tresnak bideragarriak izan daitezen eta politika eta tresna berriak diseinatzeko, berrikuntzako eskualde-ekosistemei eta eskualdearteko lankidetzari laguntze aldera.


Eskualdeen eta EBren erakundeen arteko lankidetzak aurrera jarraitzea gomendatu du, eskualde barneko elkarteak ugaritzeko eta eskualdearteko lankidetzak areagotzeko berrikuntzaren arloan, espezializazio adimenduneko eskualde-estrategietan pilotutako esperientzia eta Eskualdeetako Lantaldeak eta Ikerketa Zentro Erkideak eskualde-berrikuntzako elkarteekin egindako baterako ekintza pilotua aprobetxatuta. Halaber, gomendatu du Europako Parlamentuarekiko lankidetzak indartzea eta arreta berezia ematea eskualde-berrikuntzako haranei buruz abian den deialdiari.



Finantzaketa gehigarria eta munta handiagokoa eskatu du eskualde-berrikuntza haranentzat eta eskualde-berrikuntzako elkarten sareentzat, kontuan hartuta, Europako Berrikuntzako Agenda Berria dela medio, Europako Batzordeak baterako inbertsio gehiago sustatu nahi dituela berrikuntza-arloan, beste finantzaketa-iturri batzuk sustatuta (COFUND) Europa Horizonteko Europako berrikuntza-ekosistemen eta EGEFaren I3 tresnaren bidez.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-03934-00-01-ac-tra-es.docx/content>

ARGITALPENAK



- *El colapso de la Administración en España. Un análisis políticamente incorrecto.*

Egilea: Carles Ramió.

Argitalpen-data: 2024-04-15

Informazio gehiago: https://www.catarata.org/libro/el-colapso-de-la-administracion-en-espana_155539/



- *Documentación Administrativa. Nueva Época. 11. zk. (2023ko abendua)*

Monografikoa: *El empleo público local en la encrucijada.*

Koordinatzailea: J. Javier Cuenca Cervera

DOI: <https://doi.org/10.24965/da.11.2023>



- **Gestión y Análisis de Políticas Públicas. Nueva época. 34. zenbakia Monografikoa (2024ko martxoa)**



Ale monografikoa: *Gobernanza multinivel de los bienes comunes y sostenibilidad ambiental*

Koordinatzaileak: Alberto de la Peña Varona eta Mercedes Alda-Fernández

DOI: <https://doi.org/10.24965/gapp.34.2024>

Argitalpen-data: 2024-03-01

- **Carta Local, 375. zk., 2024ko urtarrila. FEMP.**



<https://www.femp.es/node/6650>

- **Carta Local, 376. zk., 2024ko otsaila. FEMP.**



<https://www.femp.es/node/6669>




- *Carta Local*, 377. zk., 2024ko martxo. FEMP.



<https://www.femp.es/node/6705>

- *Los convenios urbanísticos: comentarios, legislación, jurisprudencia, preguntas y formularios.*




Egilea: Antonio Cano Murcia

Argitaletxea: Once Libros

Argitalpen-data: 2024

Informazio gehiago: <https://editorial.tirant.com/es/libro/los-convenios-urbanisticos-comentarios-legislacion-jurisprudencia-preguntas-y-formularios-9788417592332>

- *De las Smart Cities a las Ciudades integradoras: propuestas socio-jurídicas para una administración local del S. XXI*



Egilea: Manuela Mora Ruiz, zuz.

Argitaletxea: Dykinson

Argitalpen-data: 2023

Informazio gehiago: <https://www.dykinson.com/libros/de-las-smart-cities-a-las-ciudades-integradoras/9788411228350/>



DEIALDI INTERESGARRIAK

- **Espainiako gobernuak Suspertze Planari loturiko inbertsioen betearazpena eta inpaktua ezagutzeko aukera ematen duen tresna bat zabaldu du.**

ELISA du izena Espainiako gobernuak interesdunentzat erabilgarri jarri duen tresna. Horren bidez, Suspertze Planari loturiko inbertsioen betearazpenari buruzko informazio eguneratua eskuratu dezakete. Lizitazioen eta dirulaguntzen deialdien jarraipena egiteko aukera ematen du, eta deialdi horien ebazpena ezagutzekoa, bai Estatuko Administrazio Orokorrek zuzenean kudeatutako funtsen kasuan, bai konferentzia sektorialen bidez autonomia-erkidegoei eskualdatutakoen kasuan zein toki-korporazioek betearazitakoen kasuan.

Tresna hori eskura dago Suspertze Planaren webgunean, Estatuko Administrazio Orokorrek plan horri loturiko inbertsioen jarraipena egiteko, inbertsioek ezarritako helburuak betetzeari egindako ekarpena ebaluatzeko eta Espainiako ekonomiaren eraldaketan eta hazkundeak izandako inpaktua aztertzeke garatu dituen gainerako aplikazioen osagarri da; alegia, gardentasun-elementu bat gehiago.

<https://planderecuperacion.gob.es/ejecucion/elisa-el-plan-en-cifras>





- EB-KO ZUZENBIDEAREN APLIKAZIO JUDIZIALARI BURUZKO VI. JARDUNALDIAK Jardunaldia: «Europar Batasuneko Zuzenbidea ezartzea eta haren kontrol judiziala».



Jardunaldia 2024ko maiatzaren 16an izango da, Donostiako Miramar Jauregian.

Hartzaileak: EAEko administrazio publikoetako langileak eta karrera judizialeko kideak.

Antolatzaileak: IVAPen Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua

Informazio gehiago, hemen:

https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/evento/implementacion_derecho_ue/eu_def/adjuntos/egitaraua.pdf



- Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udaleko Ingurumen Gaietarako Ikastegiak uraren erabilerari buruzko sentsibilizazioa bultzatzeko jardunaldi bat antolatu dute, Uraren Mundu Egunaren harira, Arabako Ingurumenaren Astearen atariko gisa (Gasteizen egingo da ekainaren 10etik 14ra bitarte).

Aurreikusita dago Gasteizko Probintzia plazan Klima Azoka bat egitea ekainaren 14, 15 eta 16an, jolas interaktiboan eta dinamika ludikoaren bidez herritarrak kontzientziatu eta mobilizatu ahal izateko klima-aldaketaren ondorioen eta keinu txikiek eguneroko ohituretan duten garrantziaren inguruan, keinu txikien

bidez aldaketa arintzen eta egokitzen laguntze aldera.

Karpa bakoitzean, gure eguneroko bizitzako hainbat alderdiri buruz eta klima aldaketan duen eraginari buruz sentsibilizatzeko jolasak egongo dira. «Azken helburua da pertsona bakoitzak erronka bat bere gain hartzea, ekintzaren batekin konprometitzea», adierazi du aldundiak.

Informazio gehiago: <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/2024/03/20/gasteizko-udalal-eta-arabako-foru-aldundiak-uraren-arrazoizko-erabilerari-buruzko-sentsibilizazioa-bultzatzeko-jardunaldia-antolatu-dute-atarian/?lang=eu>



- BERRIKUNTZA PUBLIKOARI BURUZKO KONGRESUA, 2024

DATAK: urriak 24 eta 25

Hiria: Valentzia

Informazio gehiago:

<https://www.congreso.novagob.org/>



XIV CONGRESO NACIONAL DE INNOVACIÓN Y SERVICIOS PÚBLICOS

- **2024ko CNIS sarien deialdia egin da.** Eman da ezagutzera sari ospetsu horien deialdia. 2024ko CNIS sariak aurtien kategorია orokor berriak izango dituzte (guztira, 12) eta berriz ere emango dira sari bereziak (lanbide-ibilbidearena, berritzaile publikoarena eta aitortza bereziarena).

Informazio gehiago: <https://www.cnis.es/>

- **Espainiako Kriptologia Zentroak Espainiako Segurtasun Eskemaren inguruko prestakuntzari buruzko Challengean parte hartzeko izen-emate epea zabaldu du.** Espainiako Kriptologia Zentroak erronka-plataforma berri bat garatu du Espainiako Segurtasun Eskemaren inguruan. Plataforma horretan, parte-hartzaileek arloari buruzko ezagutzak probatu ahal izango dituzte.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Lehiaketa maiatzaren 6an hasiko da, baina parte hartzeko interesa dutenek aurretiaz eman behar dute izena plataforman. Epea maiatzaren 5ean amaituko da.



ENS CHALLENGE

#CCNENSCHALLENGE

La plataforma de retos sobre el Esquema Nacional de Seguridad

Informazio gehiago:

<https://www.ccn-cert.cni.es/es/seguridad-al-dia/novedades-ccn-cert/12932-el-ccn-abre-la-inscripcion-para-participar-en-ens-challenge-la-nueva-competicion-de-formacion-sobre-el-esquema-nacional-de-seguridad.html>

[nueva-competicion-de-formacion-sobre-el-esquema-nacional-de-seguridad.html](https://www.ccn-cert.cni.es/es/seguridad-al-dia/novedades-ccn-cert/12932-el-ccn-abre-la-inscripcion-para-participar-en-ens-challenge-la-nueva-competicion-de-formacion-sobre-el-esquema-nacional-de-seguridad.html)